

Basque DCCren txostena

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Saila

2020/11/26



AUDENS

San Vicente kalea 8, 4.F, Albia II eraikina - 48001 Bilbo
Marqués de Cubas, 12, 5ºC - 28014 Madril

www.audens.es

Aurrekariak eta txostenaren helburua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (aurrerantzean Kultura Saila) gure enpresa kontratatu du, Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien jabetza intelektualari¹ buruz (Jabetza Intelektuala, ondorio horietarako, zentzu zabalean hartuta²) duten ezagutza-maila eta betetze-maila aztertzeko, baita helburuak antzemateko ere, ondoren desbideraketak arintzen dituzten jarduerak eta ekintzak martxan jartze aldera.

Historikoki ez da egon Kultura eta Sormen Industrien (aurrerantzean KSIak) kontzeptualizazio bakarra, eta hainbat irizpide eta kontzeptu erabili izan dira horiek izendatu edo definitzeko. Gaur egun, ordea, UNESCOk emandako nozioak sortu du adostasunik handiena. Hala, definizio horren arabera, honako hauek dira KSIak (txosten honetarako): kultura-, arte- edo ondare-ondasunak, zerbitzuak eta jarduerak ekoitzi edo erreproduzitzea, sustatzea, hedatzea eta merkaturatzea xede nagusi duten jarduera antolatuko sektoreak³.

Horiek horrela, aintzat hartuta KSlen kontzeptualizazio hori, Kulturaren Euskal Behatokiak 15 azpisektoretan banatu ditu KSIak, kultura-azpisektoretan eta sormen-azpisektoretan banatuta⁴, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Arte eszenikoak Ikusizko arteak Ikus-entzunezkoak Argitalpenak eta medio inprimatuak Musika Kultur ondarea	Arkitektura Artisautza Eduki digitalak Diseinua Gastronomia Hizkuntzaren industriak Moda Publizitatea eta Marketina Bideo-jokoak
Kultura azpisektoreak	Sormen azpisektoreak

Horrela, aipatutako azpisektoreetako bakoitzak, nahiz eta antolaketari eta konfigurazioari dagokionez karakterizazio eta ezaugarri propioak dituen, elementu komunak ditu gainerako kultura- eta sormen-azpisektoreekin. Puntu komun horien artean dago, ezin bestela izan, haien sorkuntzak, asmakuntzak, modeloak, marrazkiak, patenteak eta gainerako elementu ukiezinak babesteko premia larria; izan ere, askotan haien negozioaren edo ustiapenaren giltzarri ere badira. Hortaz, ezinbestekoak dira, batetik, KSlen benetako beharrak benetan ezagutzea eta, bestetik, *ex ante* eta *ex post* aholkularitza, industria horiek sortutako aktiboak hirugarrenen esku-sartzeetatik babesteko eta, batez

¹ Siglen bidez adierazita "JI"

² Aintzat hartuta jabetza intelektuala bera zein jabetza-industrialaren berezko alderdiak (markak, diseinuak, patenteak...).

³ Kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzeko konbentzioa. UNESCO. Paris, 2005eko urriaren 20a

⁴ KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA "Euskadiko KSlen sektorearen mugaketa kontzeptuala eta definizioa". Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Hemen eskuragarri: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ksi_mugaketa_2018/eu_def/adjuntos/EUSKADI_KSI_mugaketa.pdf

ere, segurtasun juridikoa emateko ekonomia-, merkataritza-, enpresa- edo industria-igorpenean eta -trafikoan.

Ondorioz, txosten honen xedea da KSlek beren aktibo ukiezinaren babesari buruz duten ezagutza-maila hautematea, JIa babesteko ekintzen betetze-maila aztertzea eta KSlen benetako beharrak definitzea, ondoren "Basque District of Culture and Creativity" (aurrerantzean, "Basque DCC") proiektuaren esparruan ekintzak eta jarduerak egiteko balorazioa gauzatze aldera. Basque DCC proiektua KSletako profesionalei eta enpresei ekintzaitza-, berrikuntza- eta lehiakortasunaren hobekuntza-prozesuetan laguntza emateko sortu zen. Helburu horien artean, enpresa honen ardura da KSlen JIren arloko beharrak aztertzea (enpresa-ehunduraren egungo egoeraren eta betetze-maila optimoaren arteko alderaketan oinarrituta) eta helburuak eta lehentasunak zehaztea.

Horretarako, enpresa honek bilerak eta komunikazioak egin zituen Eusko Jaurlaritzako arduradunekin, Innobasquerekin, Basque DCCrekin berarekin eta KSletako hainbat eragilerekin, proiektuaren benetako gorabeherak ezagutzeko eta industriaren behar praktikoak ondorioztatzeko, aktiboak eta ustiapenak babesteari dagokionez. Egindako bileretan erabaki zen txosten hau egitea eta gutxienez eduki hau izango zuela: **Ukiezinen (jabetza intelektual eta industrial) kudeaketaren betetze-maila optimoaren analisia.**

- 2. Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien egungo egoeraren azterketa.**
- 3. Euskal Kultura eta Sormen Industrien egungo egoera eta ukiezinaren kudeaketaren betetze-maila optimoa alderatzea.**
- 4. Ondorioak.**

Erabilitako metodologia

Txosten hau egiteko, erreferentziatzen hartu da, batetik, proiektuaren arduradunekin eta KSI nagusien ordezkarekin egindako bileretan enpresa honek aurrez aurre jasotako informazioa, eta, bestetik, posta elektronikoz jasotako honako dokumentazio hau:

Dokumentuak	
Basque DCC.pptx	Basque DCC proiektuaren aurkezpena: helburuak laburbiltzen ditu, Euskadiko KSIn sektorea karakterizatzen du, baita haien beharrak ere, eta proposamen jakin batzuk egiten ditu.
Itinerarios - Serv de orient y ases del Basque DCC - v3	Basque DCC proiektuaren aurkezpena: orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuaren testuingurua hartzen du barne (webgunearen ibilbideak)
Priorización herramientas FDC_vdef	Basque DCC proiektuaren aurkezpena: Flanders DCren tresnei, proposamenei eta edukiei buruzkoa, eta proiektua abian jartzeko lehenetsua ematea.
Kultura Flash informazio eskaerarako mezua	Konpainia eta ikuskizunei informazioa eskatzeko dokumentua EITBn "Kultura Flash" ekoitzi eta emateko.
P18_166_1 Informe PI en la ICC v2_240419	"Jabetza industrial eta intelektual Euskadiko Kultura eta Sormen Industrian" gaiari buruzko txosten juridikoa, Galbain Intelektual Property enpresak egina.
P18_166_Anexo A_ INSTRUMENTOS PI v240419	A eranskina, "Jabetza industrial eta intelektual" txosten juridikoaren "Jabetza industrial eta intelektual Euskadiko Kultura eta Sormen Industrian" gaiari buruzkoa, Galbain Intelektual Property enpresak egina.
P18_166_Anexo B_ Bibliografía v240419	B eranskina, "Jabetza industrial eta intelektual" txosten juridikoaren "Bibliografia eta legegintza" gaiari buruzkoa, Galbain Intelektual Property enpresak egina.

Aipatu behar da dokumentuan zehar gomendio pertsonalizatuak eta proposamenak egingo direla, modu bisualean, honako formatu honekin:

► Hau hobetzeko aholku edo proposamen bat da.

Araudi aplikagarria:

- 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testuategia onartzen duena, gai horren gainean indarrean dauden lege-xedapenak arautuz, argituz eta bateratuz.281/2003 Errege Dekretua, martxoaren 7koa, Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- 17/2001 Legea, abenduaren 7koa, Markei buruzkoa.
- 687/2002 Errege Dekretua, uztailaren 12koa, Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena.
- 24/2015 Legea, uztailaren 24koa, Patentea.
- 316/2017 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena.
- 20/2003 Legea, uztailaren 7koa, Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari buruzkoa.
- 1937/2004 Errege Dekretua, irailaren 27koa, Diseinu Industrialaren Babes Juridikoari buruzko uztailaren 7ko 20/2003 Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena.

- 6/2015 Legea, maiatzaren 12koa, autonomiaz gaindiko lurralde-eremuko jatorri deiturena eta adierazpen geografiko babestuena.
- 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5ekoa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa.
- 1/2019 Legea, otsailaren 20koa, Enpresa-sekretuei buruzkoa.

1. Ukiezinen kudeaketaren arloko betetze-maila optimoaren analisisia

Jarraian, txostenaren 3. puntuaren (Euskadiko KSlen egungo egoeraren eta ukiezin kudeaketaren betetze-maila optimoaren arteko konparazioari buruzkoa) helburua aurrerago gauzatzeko, Jabetza Intelektualak eta Industrialak aktibo ukiezinak behar bezala babesteko eta haien eskubideak behar bezala kudeatzeko eskaintzen dituzten tresnen laburpena zehazten da Azalpena tresna juridikoen laburpen-taula batekin hasiko da, eta taula horren edukia hurrengo epigrafeetan azalduko da.

1.1.- Ukiezinak babesteko eta kudeatzeko tresna juridikoen laburpen-taula

Jlren tresna	Babes- eta kudeaketa-ekintzak	Azpisektoreen araberako erabilera ⁵	Adibideak
Egile-eskubideak (jabetza intelektuala)	<p>-Jlko eskubideak inskribatzea</p> <p>- Ordainsaria jasotzeko eskubideak kudeatzea Kudeaketa Kolektiboko Erakundearekin (KKE)</p> <p>- Eskubideen transmisio- eta trazabilitate-mekanismoak (eskubideen katea ziurtatzea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Arte eszenikoak ✓ Ikusizko arteak ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Medio inprimatuen edizioa ✓ Musika ✓ Ondarea ✓ Arkitektura ✓ Artisautza ✓ Eduki digitalak ✓ Sormenezko diseinua ✓ Gastronomia ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Publizitatea eta marketina. ✓ Moda ✓ Bideo-jokoak 	<p>Musika-konposizioa: autoreari gomendatzen zaio bere obrak inskribatzea; hala badagokio, dagokion KKEarekin kudeaketa-kontratua sinatzea, eta merkaturatzean ustiapen-eskubideen trazabilitate zuzena ziurtatzea.</p>
Lotutako eskubideak (jabetza intelektuala)	<p>- Jlko eskubideak inskribatzea</p> <p>- Ordainsaria jasotzeko eskubideak kudeatzea Kudeaketa Kolektiboko Erakundearekin (KKE)</p> <p>- Eskubideen transmisio- eta trazabilitate-mekanismoak (eskubideen katea ziurtatzea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Arte eszenikoak ✓ Ikusizko arteak ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Medio inprimatuen edizioa ✓ Musika ✓ Ondarea ✓ Eduki digitalak ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Publizitatea eta marketina. ✓ Bideo-jokoak 	<p>Disko batean finkatutako edo grabatutako musika-konposizio baten eskubideak ustiatzeko, eskubideen lagapen-katea kudeatuko da, eta kate horrek bere edukian perfektua izan beharko du, alderdi guztiei beren eskubideen erabilera eta ustiapen baketsua ziurtatzeko: egilea-artista interpretea-ekoizlea-diskoetxea-</p>
Datu-baseak (sui generis eskubidea)	<p>- Datu-baseen eskubideak inskribatzea</p> <p>- Eskubideen transmisio- eta trazabilitate-mekanismoak (eskubideen katea ziurtatzea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Medio inprimatuen edizioa ✓ Musika ✓ Ondarea ✓ Eduki digitalak ✓ Bideo-jokoak 	<p>Adibidez, blog motako edo ikus-entzunezko edukien webgune bat, sistematikoki antolatzen den edukia duena eta plataformak aurkezten duena.</p>
Marka eta izen komertzialak (jabetza industrial)	<p>-Zeinu bereizgarriak erregistratzea</p> <p>- Jlko eskubideak mantentzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Arte eszenikoak ✓ Ikusizko arteak ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Medio inprimatuen edizioa ✓ Musika ✓ Ondarea ✓ Arkitektura ✓ Artisautza ✓ Eduki digitalak ✓ Sormenezko diseinua ✓ Gastronomia ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Publizitatea eta marketina ✓ Moda ✓ Bideo-jokoak 	<p>Zerbitzuak eta produktuak gainerako enpresetatik bereizteko, erabili nahi den zeinu bereizgarria erregistratu behar da, modu eraginkorren erabili, eta, hura iraungitzean, titulua berritu eta, hala badagokio, tasak ordaindu.</p>

⁵ Adierazpen-enumerazioa

Jlren tresna	Babes- eta kudeaketa-ekintzak	Azpisektoreen araberako erabilera ⁵	Adibideak
Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak (jabetza industrial)	-Jlko eskubideak lortzea - Jlko eskubideak mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Musika ✓ Arkitektura ✓ Eduki digitalak ✓ Sormenezko diseinua ✓ Gastronomia ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Bideo-jokoak 	Asmakuntza propio bat babesteko, patente-titulua edo erabilgarritasun-eredua emateko eskatu behar da. Ematen bada, asmakuntza ustiatu eta dagozkion urteko kuotak ordaindu behar dira.
Diseinu industrialak (jabetza industrial)	-Diseinu industrialak erregistratzea -Jlko eskubideak mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Artisautza ✓ Eduki digitalak ✓ Sormenezko diseinua ✓ Gastronomia ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Publizitatea eta marketina ✓ Moda ✓ Bideo-jokoak 	Sorkuntza estetiko bat (adibidez, moda-diseinu bat) diseinu industrial gisa erregistratu daiteke, baita merkaturatu duen arrakasta frogatu ondoren ere (diseinua hedatu eta 12 hilabeteko epean).
Jatorri-deitura eta adierazpen geografiko babestuak (jabetza industrial)	- Produktua erregistratzea, jatorri-adierazpenari dagokionez (JDB edo AG)	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ondarea ✓ Gastronomia 	Kalitate berezia eta eremu geografiko batekin lotura duen produktu bat merkaturatu nahi bada (Txakolina)
Irudi-eskabideak (beste eskubide eta tresna batzuk)	- Irudi-eskubideen titularren baimena - Ohorerako eta intimitaterako eskubidea errespetatzea	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Arte eszenikoak ✓ Ikusizko arteak ✓ Ikus-entzunezkoak ✓ Medio inprimatuaren edizioa ✓ Musika 	Hirugarren pertsonen irudia erabiltzeko, adibidez, argazki batean, haien irudia erabiltzeko baimena eskuratu behar da, eta haien oinarritzko eskubideak errespetatu.
Enpresa-sekretuak (beste eskubide eta tresna batzuk)	- Informazio-sekretua - Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak)	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hizkuntzaren industriak ✓ Publizitatea eta marketina ✓ Gastronomia ✓ Bideo-jokoak 	Informazio konfidentziala edo teknologiaren zein merkataritzaren arloko egiten jakite oso baliotsuak izan daitezke. Horregatik, hainbat neurri hartu behar dira haien lege-babesa bermatzeko. Adibidez, gastronomian, elikagaiak edo produktuak tratatzeko teknika jakin bat.

1.2.- Jabetza intelektualeko eskubideak

Eskubide pertsonalek eta ondare-eskubideek osatzen dute jabetza intelektuala, eta eskubide horiek obra xedatzeko esku osoa eta hura ustiatzeko eskubide eskusiboa ematen diote egileari. Jabetza intelektualak egile-eskubideak eta lotutako eskubideak hartzen ditu barne, besteak beste.

1.2.1.- Egile-eskubideak

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Jabetza intelektualaren objektu dira jatorrizko sorkuntza literario, artistiko edo zientifiko guztiak, gaur egun ezagutzen den edo etorkizunean asmatzen den edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ukiezinen bidez adieraziak.

Egile-eskubideak egileari dagozkio, sortzeagatik soilik; eta halakotzat hartzen da delako obra⁶ **sortzen duen pertsona fisikoa**⁷.

Oro har⁸, obraren ustiapen-eskubideek egilearen bizitza osoan iraungo dute, baita hura hil edo heriotza-deklarazioaren ondorengo 70 urteetan ere. Eskubide moralek iraupen mugagabea dute, transmitiezina eta uko egin ezinezkoak dira.

► Jabetza intelektualeko eskubideak direla-eta babesa eman dadin, i) **sorkuntzak** ii) **jatorrizkoak** eta iii) **adierazitakoak** izan behar dira.

Egile-eskubideen edukia honako bi kategoria hauetan banatzen da:

Eduki moraleko eskubideak. Egileak ezin die uko egin eskubide horiei, eta ezin ditu saldu edo laga. Egileari aitortzen zaizkio hasieratik, sortzeagatik soilik, eta honako eskubide hauek dira:

- **Dibulgazioa:** argitalpenari eta formari buruz erabakitzekeo eskubidea.
- **Egiletasuna:** obraren egilea dela aitortzeko eskatzea. **Osotasuna:** obraren osotasuna errespetatzea; obraren aurkako edozein aldaketa edo atentatu eragozte, baldin eta horrek bere interes legitimoak edo osperari kalte egiten badiu⁹.
- **Kentzea:** obra merkatutik kentzea.
- **Aldatzea:** obra aldatzea, hirugarrenen eskubideak eta interes kulturala errespetatuta.

► Obra baten gaineko edozein ustiapen-egintzak egilearen eskubide moralen edukia errespetatu behar du, eta, bereziki, obraren egiletasun- eta osotasun-eskubideak.

Ustiapen-eskubideak. Egileari baino ez dagozkion eskubideak dira, egilea den aldetik. Ondare-edukia duten eskubideak dira, horien bidez egileak onura ekonomikoak lor baititzake. Honako hauek dira eskubide garrantzitsuenak:

- **Erreproduktzio-eskubidea:** obra osoa edo obraren zati bat edozein bitartekoren bidez eta edozein formatan **finkatzea**, **obra komunikatu** edo kopia egin ahal izateko.
- **Banaketa-eskubidea:** jatorrizko obra edo haren kopia jendearen **eskura jartzea**, **euskarri ukigarri** batean, salmentaren, alokariaren, mailegaren edo beste edozein moduren bidez¹⁰.

⁶ Autoretza partekatu izan daiteke, eta partaidetzaren mailaren eta izaeraren arabera, lankidetzan edo taldean

⁷ Egilea pertsona juridiko bat izan daiteke, ordenagailu-programei buruzko sorkuntzen kasuan.

⁸ Iraupena eta zenbaketa aldatu egin daiteke lankidetzan egindako obran, obra kolektiboen, hil ondoren argitaratutako obran, pseudonimo batekin sinatutako obran, obra anonimoen eta zatika argitaratutako obran kasuan.

⁹ Obra aldatzeko eskubideari (ondare-eskubidea) kalterik egin gabe.

¹⁰ Kontuan hartu behar da banaketa-eskubidea agortzearen figura; izan ere, eskubideen titularrak iraungitza jotzen du erabiltzaileak geroago egindako salmenta-egintzak debekatzeko eskubidea, egileak edo hirugarren batek bere baimenarekin lehen aldiz merkaturatutako jatorrizko obrari edo haren kopiei dagokionez

Komunikazio publikorako eskubidea: pertsona askok¹¹ obra eskuratzea ahalbidetzen duen egintza oro, **aldez aurretik horietako bakoitzari aleak banatu gabe¹²**.

- **Eraldaketa:** formaren aldaketak, beste obra bat erator dadin (deribatutako obra).Aurreko egintzetatik edozein egiteko, eskubideen titularraren baimena behar da.

Ordainsaria jasotzeko eskubideak: hainbat kontzepturengatik titularraren alde aitortutako diru-kopuruak dira.

Mugak eta jabari publikoa. Batzuetan ez da beharrezkoa izaten titularraren baimena:

- **Titularraren baimenik behar ez duten baina ordainsaria jasotzeko eskubideak ordaintzea dakarten egintzak, hala nola eduki-agregatzaileek egindako egintzak edo terminal espezializatuen bidez obren jakinarazpen publikoa.**
- **Titularraren baimenik behar ez duten eta ordainsaria jasotzeko eskubideak ordaintzea dakarten egintzak, hala nola parodiak egitea edo behin-behineko erreprodukzioak.**
- Bestalde, obrak ustiatzeko eskubideak iraungitzen badira, **jabari publikora** igaroko dira, hau da, oro har gizartearenak izango dira.

ii. Egile-eskubideak kudeatzeko eta babesteko ekintzak

Behar bezala kudeatzeko, ezinbestekoa da egile-eskubideen trazabilitatea bermatzea, ustiapen-faseetan esku hartzen duten pertsona guztiak babesteko. Honako hauek dira aintzat hartu beharreko ekintza eta alderdi nagusiak:

Jabetza intelektualeko eskubideak inskribatzea

Erregistroa: borondatezko egintza bat da, deklaraziozkoa, eta ez ditu eskubideak eratzen. Hala ere, inskribatzea eskubide inskribatuak existitzen direla egiaztatzen duen **froga kualifikatua** da.

Objektua eta ondorioak: **jatorriz eskuratutako eskubideak¹³ nahiz eratorritakoak¹⁴** inskriba daitezke. Ondorioak eskaera jasotzen den egunetik zenbatzen dira, eta Estatu osoan ditu ondorioak.

Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorraren antolaketa: bakarra da lurralde nazional osoan, eta lurralde-erregistroek eta erregistro zentralak osatzen dute.

- **Euskadiko Lurralde Erregistroa:** Vitoria-Gasteiz¹⁵.
- **Mendeko bulegoak:** Gipuzkoa¹⁶ eta Bizkaia¹⁷.

Eskaera: telematikoki ere aurkez daiteke, sinadura elektronikoa aitortuaren bidez, eta tasak ordaindu behar dira.

¹¹ Komunikatzeko eta jendearen eskura jartzeko egintza orok ez du titularren baimenik behar. Horixe gertatzen da komunikazio-egintzaren bidez publiko berriari sarbidea ematen ez zaionean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) adierazi duen bezala.

¹² Honako hauek dira komunikazio publikoko ekitaldi adierazgarrienak: obra dramatikoaren, literarioaren eta musikalen antzezpen eszenikoak; obra zinematografikoaren eta gainerako ikus-entzunezkoaren proiektzioa; obrak publikoaren esku jartzea, hari bidezko edo haririk gabeko prozeduren bidez, edozein pertsonak eskura baditzake aukeratzeko duen lekutik eta uanean; satelite bidezko irrati-difusioa edo publikoarentzako komunikazioa; edozein obra publikoari hari, kable, zuntz optiko edo antzeko beste prozedura baten bidez transmititzea, abonamenduaren bidez izan ala ez.

¹³ Egileari dagozkio, sortzeagatik.

¹⁴ Eskubideak eratzeko, eskualdatzeko, aldatzeko edo iraungitzeko edozein egintzaren ondorioz.

¹⁵ Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010; Telefonoa: 94 501 68 48; posta elektronikoa: rpi-euskadi@euskadi.eus

¹⁶ Andia kalea 13, 20004- Donostia; Telefonoa: 94 302 29 62.

¹⁷ Kale Nagusia 85, 48011- Bilbo. Telefonoa: 94 403 16 50.

- ▶ Derrigorrezkoa ez bada ere, eskubideak inskribatzea gomendatzen da; izan ere, froga kualifikatua eta egiletza-presuntzioa sortzen dituen egintza da.
- ▶ Eskubideak inskribatzeko eskaerak zuzenean aurkeztuko dira lurralde-erregistroetan edo probintzia bakoitzeko erregistro-bulegoan.

Ordainsariak jasotzeko eskubideak kudeatzea

Gomendatzen da ordainsaria jasotzeko eskubideak dagokion Kudeaketa Kolektiboko Erakundearekin (KKE) koordinatzea. Erakunde horiek euren izenean edo besteren izenean jarduten dute euren titular legitimoen ordainsaria jasotzeko eskubideak kudeatzen eta administratzen. Erakundeak bi egoeratan kudea ditzake eskubideak:

- **Derrigorrezko kudeaketa kolektiboa:** lege-aginduaren bidez, eskubide konpentsatzaileak biltzen dituzte (kopia pribatuengatik konpentsazioa, ikus-entzunezko egileen ordainsaria alokairuagatik eta leku publikoetan erakusteagatik, besteak beste).
- **Borondatezko kudeaketa kolektiboa:** dagokion KKEarekin kudeaketa-kontratu bat sinatu behar da, eta bertan baimena ematen da erakundeari kudeatzeko eskatzen zaion eskubide, eskubide-kategoria edo obra- edo prestazio-mota bakoitza kudeatzeko eta biltzeko (ondoren banatzeko), lurralde zehatza zehaztuta.
- **Honako hauek dira egile-eskubideen KKE adierazgarrienak:**
 - SGAE (Egile eta Editoreen Elkarte Nagusia)
 - VEGAP (Artista Plastikoak Kudeatzeko Ikus Erakundea)
 - CEDRO (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa)
 - DAMA (Ikus Entzunezko Baliabideen Egile Eskubideen Elkarte)

Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea

Alderdi hau ezinbestekoa da obraren ustiapen ekonomikoa modu baketsuan ziurtatzeko. Ustiapen-eskubideak eskualda daitezke (baita oinordetzaren bidez ere). Honako hauek dira transmisioari eragiten dioten alderdi nagusiak¹⁸:

- Inoiz ez da egongo obrarekiko erabateko desloturarik (gogora dezagun eskubide moralek iraun egiten dutela).
- Forma-betekizunak: lagapena idatziz egin beharko da.
- Honako elementu hauek mugatu behar ditu lagapenak: **denbora, lurralde, erabilera-modalitate**ei buruzkoa, eta lagatako eskubidea edo **eskubideak**, besteak beste. Lagapen-presuntzioak, aipamenik ez badago¹⁹:
 - Denbora: transmisioa gehienez 5 urtekoa izango da.
 - Lurraldea: lagapena egiten den herrialdera mugatzen da.
 - Ustiapen-modalitateak: kontratutik bertatik nahitaez ondorioztatzen den eta haren helburua betetzeko ezinbestekoa den lagapenera mugatuko da lagapena (gainera, ez da baliozkoa eskubideen "lagapen globala").Oro har²⁰, ezer adierazten ez bada, lagapena

¹⁸ Kasu berezietarako presuntzioak, mugak eta **betekizun espezifikokoak** alde batera utzi gabe, hala nola ikus-entzunezko obra eta **edizio-kontratuak**.

¹⁹ Espezialitateak: lagapen-presuntzioa soldatapeko egilearen kasuan, eta ustiapen-eskubidea kontserbatzea aldizkako argitalpenen kasuan, besteak beste.

²⁰ Salbuespenak soldatapeko egileen, ikus-entzunezko obren, publizitate-sorkuntzen eta abarren kasuan.

ez-esklusibotzat jotzen da; hau da, eskubideak beste hirugarren batzuei ere laga dakizkieke.

- Lagapenaren mugak:
 - Ezin dira autoreak etorkizunean sor ditzakeen obra guztien ustiapen-eskubidea laga (klausula deuseztatzea).
 - Ez da baimentzen egileak etorkizunean obraren bat ez sortzeko konpromisoa hartzeko estipulaziorik (klausularen deusezetasuna).
 - Ustiapen-eskubideen transmisioak ez ditu barne hartzen lagapena egitean existitzen ez ziren edo ezagutzen ez ziren erabilera-modalitateak edo hedabideak.
- Lagapena **esklusiboa** edo **ez-esklusiboa** izan daiteke:
 - Esklusiboa: obra ustiatu daiteke beste pertsona bat bazter utzita, baita lagatzailea bera ere, eta hari eragiten dioten urraketan jarraipena egiteko legitimazioa ematen du. Horrez gain, eskubideak laga zaizkion pertsona behartuta dago emandako ustiapena eraginkorra izan dadin behar diren baliabide guztiak jartzera. Kontraprestazioa: kasuaren arabera, ordainsaria ustiatzearen onurekiko proportzionala izango da, edo oroharreko prezioan (adibidez, diru-sarrerak zehazteko zailtasun larririk izanez gero). Nolanahi ere, lagapena doan egitea baimentzen da.

► Ezinbestekoa da transmisio-arauak betetzea **lagapen-eskubideen katea** ziurtatzeko: egileak, editoreak, ekoizleak eta banatzaileak.

1.2.2.- Lotutako eskubideak (jabetza intelektualeko beste eskubide batzuk) Eskubide independenteak dira, aurrekoekin bateragarriak eta metagarriak²¹, eta ez dute zertan originaltasunaren baldintza bete. Beste eginkizun edo exekuzio batzuk egiten dituzten pertsonen alde aitortzen dira, jarraian ikusiko den bezala.

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Artista interpreteen edo exekutatzaileen eskubideak

Artista interprete edo exekutatzailea da obra bat edozein modutan antzeztu, abestu, irakurri, errezitatu, interpretatu edo exekutatzen duen pertsona. Eszena-zuzendariek eta orkestra-zuzendariek ere pertsona horiei aitortutako eskubideak izango dituzte.

Eskubideen edukia:

- **Ustiapen-eskubideak emanaldiei dagokienez:** finkatzea, erreproduzitzea, komunikazio publikoa²², eskuragarri jartzea²³ eta banaketa-eskubidea²⁴.
- **Eskubide moralak:** izena aitortzea, deformazioei aurka egiteko eskubidea, bikoizketak bere hizkuntzan egiteko baimen-eskubidea.

²¹ Adibidez: fonograma bat erabili ahal izateko, askatu egin behar dira bai obraren egile-eskubideak, bai obraren interpretazio-eskubideak, bai obra finkatuta dagoen fonogramarenak.

²² Honako kasu hauetan izan ezik: emanaldi hori berez irratiz transmititutako emanaldi bat denean edo alde zurretik baimendutako finkapen batetik abiatuta egiten denean.

²³ Kontuz: fonogramaren ekoizlearen aldeko lagapen-presuntzioa.

²⁴ Kontuz: ikus-entzunezko grabazioetan finkatutako emanaldien alokairu-eskubideak ekoizlearen alde lagatzearen presuntzioa.

- **Ordainsaria jasotzeko eskubideak:** bidezko konpentsazioa kopia pribatuagatik, jendearen eskura jartzeagatik eta komunikazio publikoagatik, emanaldiengatik, alokairuagatik, besteak beste.
- **Iraupena:** 50 - 70 urte.

Fonogramen ekoizleen eskubideak

Fonograma bat obra baten edo beste soinu batzuen exekuzioaren soinu-finkapen oro da. Fonograma baten ekoizlea pertsona natural edo juridikoa da, eta haren ekimenez eta erantzukizunpean egiten da **lehenengo aldiz** aipatutako finkapena (normalean, diskoetxeak).

Hona hemen dituen eskubideen laburpena:

- **Fonogramaren gaineko ustiapen-eskubideak:** erreprodukzioa, eskura jartzea, satellite bidez edo kable bidez egindako komunikazio publikoa, banaketa.
- Ordainsaria jasotzeko eskubidea: kopia pribatuengatik bidezko konpentsazioa, komunikazio publikoagatik ordainsaria. **Iraupena:** 50 - 70 urte.

Ikus-entzunezko grabazioen ekoizleen eskubideak

Ikus-entzunezko grabazioak plano edo irudi-sekuentzia baten finkapenak dira, soinua dutenak edo soinurik gabekoak, ikus-entzunezko lanak izan ala ez (film bat edo telebista-programa bat). Ikus-entzunezko grabazio baten ekoizletzat jotzen da ikus-entzunezko grabazio horren ekimena duen eta ardura bere gain hartzen duen pertsona natural edo juridikoa.

Hona hemen dituen eskubideen laburpena:

- **Ikus-entzunezko grabazioaren gaineko ustiapen-eskubideak:** erreprodukzioa, komunikazio publikoa, banaketa, ikus-entzunezko grabazioaren ekoizpen-prozesuan egindako argazkien ustiapena. **Ordainsaria jasotzeko eskubideak:** irrati-emandako grabazioen emankizuna eta irrati-emandako obraren emisioa edo transmisioa, jendearentzako irisgarria den lekuan, edozein tresna egokiren bidez. **Iraupena:** 50 urte. **Ikus-entzunezko grabazioa obra bat bada, babes bikoitza dago (obrarena eta grabazioarena).** **Irrati-difusioko erakundeen eskubideak**

Irrati-difusioko erakundeak dira, besteak beste, irrati edo telebista. Emisioak edo transmisioak dira babesaren xedea. Hona hemen dituen eskubideen laburpena:

- **Ustiapen-eskubideak (emisio edo transmisioei dagokienez):** finkatzea, erreproduzitzea, eskura jartzea, komunikazio publikoa (betekizun espezifikoen mendekoa) eta banatzea.
- **Iraupena:** 50 urte.

Argazki hutsen eskubideak

"Argazki hutsa" da argazki-prozeduraren edo antzeko prozeduraren bidez egiten den edozein irudi-finkapen edo -erreprodukzio, originaltasunik ez duena (hau da, ez ditu betetzen argazki-lanaren baldintzak). Eskubideen titularra argazkilaria edo errealizadorea izango da. Hona hemen dituen eskubideen laburpena:

- **Ustiapen-eskubideak:** erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa (ez da aurreikusten eraldaketa-eskubidea).
- **Iraupena:** 25 urte.

Jabari publikoko obra argitaragabeen eta babestu gabeko obren eskubideak

Jabari publikoan dagoen lan argitaragabe bat zilegi den moduan argitaratzen duen pertsona orok egileari zegozkiokeen ustiapen-eskubide berak izango ditu haren gainean. **Iraupena:** 25 urte.

Era berean, legeak babesten ez dituen obren editoreek eskubide eskusiboa izango dute edizio horien erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa baimentzeko, baldin eta argitalpen horiek indibidualizatu badaitezke beren osaera tipografikoagatik, aurkezpenagatik eta gainerako argitalpen-ezaugarriengatik. Iraupena: 25 urte.

ii. Lotutako eskubideak kudeatzeko eta babesteko ekintzak

Jabetza intelektualeko eskubideak inskribatzea

Arestian esan den bezala, gomendatzen da lotutako eskubideak inskribatzea.

Ordainsariak jasotzeko eskubideak kudeatzea

Arestian esan den bezala, gomendatzen da dagokion KKEarekin koordinatzea.

- Derrigorrezko kudeaketa kolektiboa (artistak: komunikazio publikoagatik, eskuragarri jartzeagatik eta alokairuagatik; ekoizleak: komunikazio publikoagatik).
- Borondatezko kudeaketa kolektiboa: dagokion KKEarekin **kudeaketa-kontratu bat sinatu** behar da.
- Honako hauek dira egile-eskubideen KKE adierazgarrienak:
 - AIE (Artista interprete eta exekutatzaileak, Espainiako Kudeaketa Elkarteak)
 - AISGE (Artista interpreteak, Kudeaketa Elkarteak).
 - AGEDI (Eskubide Intelektualen Kudeaketa Erakundea) eta AIE (Artista interprete eta exekutatzaileak, Espainiako Kudeaketa Elkarteak). Fonogramen kudeaketa bateratua.
 - EGEDA (Ikus-entzunezko Ekoizleen Eskubideen Kudeaketa Erakundea).

Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea

Artista interprete eta exekutatzaileak

Eskubide horiek ere transmiti daitezke. Honako hauek dira transmisioari eragiten dioten arau nagusiak:

- Obrarekiko erabateko deslotura ez izatea (eskubide moralak).
- Formalitateak: emanaldiak finkatu, erreproduzitu, komunikatu eta banatzeko baimena idatziz eman behar da.
- Lagapenak ahalik eta alderdi gehien mugatu behar ditu argi eta zehatz.
- Lagapen-presuntzioak²⁵.
 - Lan-kontratu baten edo zerbitzuen errentamendu-kontratu baten esparruan: kontrakorik hitzartu ezean, enpresaburuak edo errentariak erreprodukzioarako eta komunikazio publikorako eskubide eskusiboak eskuratzen ditu.
 - Ikus-entzunezko grabazioa ekoizteko kontratu baten esparruan: kontrakorik hitzartu ezean, alokairu-eskubideak transferituta daudela ulertuko da
 - Fonogramak ekoizteko kontratu baten esparruan: kontrakorik hitzartu ezean, publikoaren esku jartzeko eskubidea transferitu dela ulertuko da.Fonogramen ekoizleak

Honako hauek dira transmisioari eragiten dioten arau nagusiak:

²⁵ Ez zaie aplikatzen, hiru kasuetan, bidezko ordainsariak jasotzeko eskubide ukaezinei (eskura jartzea, alokairua eta komunikazio publikoa).

- Artista eta interpreteekiko harremana: ekoizleek euren alde dituzten artista- eta interprete-eskubideak ekoizpen-kontratu baten bidez lortzen dira.
- Egilearen baimena: obra fonograman sartzeko, lizentzia ez-esklusiboa behar da.
- Lagapenak ahalik eta alderdi gehien mugatu behar ditu argi eta zehatz
- Lagapen-presuntzioak²⁶:
 - Fonogramak ekoizteko kontratu baten esparruan: kontrakorik hitzartu ezean, artista edo interprete exekutatuak publikoaren esku jartzeko eskubidea transferitu diola ulertuko da.Ikus-entzunezko grabazioak

Honako hauek dira transmisioan aintzat hartu beharreko arau nagusiak:

- Artista eta interpreteak: euren eskubideak ekoizleen alde lagatzeko, ekoizpen-kontratu bat behar da.
- Egilearen baimena: obra fonograman sartzeko, lizentzia eskusiboa behar da (obra ustiatu ahal izateko, haren izaera banaezina baita grabazioari dagokionez).
- Eskubideen lagapen-presuntzioa:
 - Ekoizpen-kontratu baten esparruan: alokairu-eskubidea transferituta dagoela ulertuko da
 - Ikus-entzunezko lanak ekoizteko kontratua: ulertuko da ekoizleari eskusiboki laga zaizkiola erreproduzio-, banaketa- eta komunikazio publikoko eskubideak, baita obraren bikoizketa- edo azpitolu-eskubideak ere.
 - Jabari publikoan ez dagoen aurretiko obra bat eraldatzeko kontratuaren bidez, ulertuko da egileak ikus-entzunezko obraren ekoizleari lagatzen dizkiola haren gaineko ustiapen-eskubideak.

1.3. Datu-baseen gaineko *sui generis* eskubidea

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Datu-baseak dira modu sistematikoan edo metodikoan kokatuta daudena obren, datuen edo bestelako elementu independenteen bildumak, bitarteko elektronikoen bidez edo beste modu batean banaka eskura daitezkeenak. Datu-baseek babes bikoitza dute, eta babes horiek modu metagarrian jardun dezakete:

- Egile-eskubidea: egile-eskubideek babestuko dituzte edukiaren hautaketatik edo antolaketatik egilearen sorkuntza intelektuala eratzen duten datu-baseak.*Sui generis* eskubidea: datu-base baten fabrikatzaileak debekatu egin dezake haren eduki osoa edo zati bat ateratzea²⁷ edo berrerabiltzea, kualitatiboki edo kuantitatiboki ebaluatuta, baldin eta eduki hori lortzeko, egiaztatzeko edo aurkezteko inbertsio handia egin behar bada ikuspegi kuantitatiboaren edo kualitatiboaren arabera. Eskubide hori transferitu, laga edo kontratu-lizentziaren bidez eman ahal izango da, eta datu-basea fabrikatzeko prozesua amaitutzat ematen den unean bertan sortuko da. Eskubidea 15 urtera iraungiko da, prozesu hori amaitu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.**ii. Datu-baseen gaineko eskubideak kudeatzeko eta babesteko ekintzak**

²⁶ Ez zaie aplikatzen bidezko ordainsariak jasotzeko eskubide ukaezinei (eskura jartzea, alokairua eta komunikazio publikoa).

²⁷ Eskubide horrek muga hauek ditu: datu-base ez-elektroniko baten edukia ateratzea helburu pribatuetarako; irakaskuntzan argigarria gisa erabiltzeko edo ikerketa zientifikorako ateratzea; edo segurtasun publikorako edo prozedura administratibo edo judicial baterako ateratzea edo berrerabiltzea.

Jabetza intelektualeko eskubideak inskribatzea

Arestian esan den bezala, gomendatzen da datu-baseen gaineko eskubideak inskribatzea.

Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea

Ziurtatu egin behar da eskubideak lagatzeko kate egokia, eta babes bikoitza izan dezakeela izan behar da kontuan (egile-eskubideak eta datu-baseen gaineko *sui generis* eskubidea). Transmisioak ez du zerikusirik egile-eskubideek datu-base hori edo haren edukia babestearekin.

1.4.- Jabetza industrialeko eskubideak

Jabetza industrialeko eskubideek titularrei ustiapenerako eskubide eskusiboa ematen diete, ondasun immaterialei dagozkien eta beste batzuei horiek ustiatzea eragozten diete (eskubide eskusiboak eta baztertzailak).

1.4.1. Zeinu bereizgarriak: marka

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Zer da? Marka zeinu bat da, merkatuan produktu edo zerbitzuak beste produktu edo zerbitzu berdin edo antzeko batzuetatik bereizteko eta haien enpresa-jatorria identifikatzeko balio duena. Kalitate-adierazle bat eta salmentak sustatzeko baliabide bat ere izan daiteke.

Legitimazioa. Pertsona fisiko edo juridikoek (zuzenbide publikoko erakundeak barne) lortu ahal izango dute markak erregistratzea.

Motak. Zeinu guztiak izan daitezke markak, bereziki hitzak, pertsonen izenak, honako hauek barne: marrazkiak, letrak, zifrak, koloreak, produktuaren edo bilgarriaren forma edo soinu Gainera, markak kolektiboak²⁸ eta berme-markak izan daitezke²⁹.

Emandako eskubideak. Bi modutara adierazten dira:

- **Positiboa:** erabiltzeko eskubidea. Marka bat erregistratzeak haren gaineko eskubide eskusiboa ematen dio titularrari.
- **Negatiboa:** hirugarrenek erabiltzea debekatzeko eskubidea.

Mugak. Emandako eskubideak ez dira absolutuak, muga jakin batzuk dituzte, eta, horien arabera, titularrak ezin ditu eragotzi hirugarrenen egintza jakin batzuk (pertsona fisikoak bere izena edo helbidea erabiltzea, marka hiztegietan erreproduzitzea, adierazpen deskribatzaileak, marka-eskubidea agortzea³⁰, erabiltzeko betebeharra, deuseztatzeko eta iraungitzeko arrazoiak, besteak beste).

Iraupena. Marka nazionalak zein Europakoek 10 urteko balioa dute eta mugarik gabe berritu daitezke 10 urteko epeetan.

Babes-sistemak. Honako bereizketa hau egin daiteke, markaren babes-lurraldearen arabera:

- **Marka nazionala:** marka erregistratzen ondorioa da marka hori Espainiako merkatuan erabiltzeko eskubide eskusiboa ematea titularrari.

²⁸ Markaren erakunde titularreko kideen produktu edo zerbitzuak beste enpresa batzuetako produktu edo zerbitzuetatik bereizteko balio dute.

²⁹ Markaren titularrak ziurtatzen dituen produktuak edo zerbitzuak bereizteko balio dute, honako hauei dagokienez: materialak, produktuak fabrikatzeko edo zerbitzuak emateko modua, jatorri geografikoa, kalitatea, zehaztasuna edo ziurtagiri hori ez duten produktuen edo zerbitzuen beste ezaugarri batzuk.

³⁰ Marka erregistratzeagatik emandako eskubideak ez dio titularrari aukera emango hirugarrenei marka hori Europako Esparru Ekonomikoan titularrak marka horrekin edo haren baimenarekin merkaturatutako produktuetan erabiltzea debekatzeko. Hau da, markaren titularrak ezin dio aurka egin merkatuan berak sartu dituen edo bere baimenarekin sartu diren produktuak gerora merkaturatzeari.

- **Europar Batasuneko marka:** marka erregistratzearen ondorioa da marka hori Europar Batasuneko (EB) egungo eta etorkizuneko estatu kide guztietan erabiltzeko eskubide eskusiboa ematea titularrari.
- **Nazioarteko marka:** marka erregistratzearen ondorioa da marka hori eman duten herrialde izendatu guztietan (Madrileko Sistemari³¹ atxikitakoetan) erabiltzeko eskubide eskusiboa ematea titularrari.

1.4.2.- Zeinu bereizgarriak: izen komertziala

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Zer da? Enpresa bat merkataritza-trafikoan identifikatzen duen eta jarduera berdinak edo antzekoak egiten dituzten gainerako enpresetatik bereizteko balio duen adierazpen grafikoa da. Pertsona fisiko edo juridikoek (zuzenbide publikoko erakundeak barne) lortu ahal izango dute izen komertzialak erregistratzea.

Motak. Izen patronimikoak, pertsona juridikoen izen sozialak eta izendapenak, fantasiako izendapenak, enpresa-jardueraren xedeari buruzko izendapenak, anagramak eta logotipoak, imajinak, irudiak eta marrazkiak, besteak beste.

Aplikazio-araubidea. Izen komertzialari Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legearen arauak aplikatuko zaizkio, baldin eta bere izaerarekin bateraezinak ez badira.

ii. Zeinu bereizgarriak kudeatzeko eta babesteko ekintzak

Zeinu bereizgarriak erregistratzea

Erregistroa. Eskubideak eratzen dituen borondatezko egintza bat da (markaren gaineko eskubide eskusiboa balio osoz egindako erregistrotik bakarrik sortzen da).

Objektua eta ondorioak: jatorriz eskuratutako eskubideak nahiz eratorritakoak inskriba daitezke.

Organoen antolaketa eta eskaerak:

- Marka nazionala: OEPMren³² egoitza elektronikoa; aurrez aurre OEPMn; autonomia-erkidegoetako jabetza industrialeko informazio-zentroetan³³; edo Correos-eko bulegoetan. Europar Batasuneko marka: EUIPO³⁴, telematikoki, postaz edo mezularitza-zerbitzu bereziaren bidez.
- Nazioarteko marka: nazioarteko eskaera bat aurkeztu ahal izateko, eskatzaileak aldeztu aurretik erregistratu beharko du marka edo erregistratzeko eskaera aurkeztu jatorrizko jabetza-bulegoan. Espainian eskaerak aurkezteko organoa OEPM da, eta horrek eskaera OMPIra³⁵ igorriko du.

Eskaera eginez gero, tasa ordaindu behar da.

Jabetza industrialeko eskubideak mantentzea

Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideek mantentze-ekintzak behar dituzte:

- Zeinua erabili egin behar da.
- Titulua berritzeko izapideak egin behar dira, eta tasak ordaindu.

³¹ Marka mota hori araupetzen duen nazioarteko tresna.

³² Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa. Eskaera elektronikoki aurkeztuz gero, eskaera-tasa % 15 murrizten da.

³³ Jabetza Industrialeko Euskadiko Bulegoak. [Lotura](#) honetan dago eskuragarri.

³⁴ Jabetza Intelektualeko Europako Bulegoa, Alacanten (EUIPO sigla ingelesez)

³⁵ Jabetza Intelektualeko Munduko Bulegoa.

- Hirugarrenek markak edo izen komertzialak erregistratzeko egin ditzaketen eskaerak begiratu egin behar dira, aintzat hartzeko gure zeinuekin nahas daitezkeen erregistroen aurka egin dezakegula. **1.4.3.- Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak**

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Figura horien bidez babes daitezke asmakuntzak (teknologia arloko giza jardueraren sorkuntzak). Asmakuntzak babesteko bi mekanismo nagusi daude: patenteak eta erabilgarritasun-ereduak.

Honako hauek patenta daitezke teknologiaren arlo guztietan: asmakuntza berriak, asmamen-jardueraren bidez egiten diren eta industrian aplika daitezkeenak.

Honako hauek babes daitezke erabilgarritasun-eredu gisa: industrial aplika daitezkeen asmakuntzak, berriak edo asmamen-jardueraren bidez egiten direnak izanik, objektu edo produktu bati konfigurazio, egitura edo osaera bat ematen diotenak. Objektu hori erabiltzeko edo fabrikatzeko abantaila begi-bistakoa da.

Bi horien baldintzak antzekoak badira ere, erabilgarritasun-ereduen baldintzak ez dira hain zorrotzak.

Iraupena: 10 urte erabilgarritasun-ereduentzat eta 20 urte patenteentzat. Ezin dira luzatu ez bata, ez bestea.

Emandako eskubideak. Bi alderditan adierazten dira:

- Positiboa: asmakuntza ustiatzeko eskubide eskusiboa.
- Negatiboa: hirugarrenei asmakuntza zuzenean edo zeharka ustiatzeko (fabrikazioa, saltzeko eskaintza, merkatuan sartzea, prozedura erabiltzea...) debekatzeko eskubidea.

Mugak: horien arabera, titularrak ezin du eragotzi hirugarrenek hainbat egintza jakin egitea (eremu pribatuan egindako egintzak, merkataritza helburua ez dutenak; esperientazio, azterketa eta saiakuntzetarako egintzak; patente-eskubidea agortzea, ustiatzeko betebeharra, deuseztatzeko eta iraungitzeko kausak).

Sistemak: Halaber, patenteak erregistratzeko eta emateko sistemaren arabera, honako bereizketa hau egin behar da:

- Patente nazionala: erregistroaren ondorioak Espainian baino ez dira hedatzen.
- Europako patentea: ondorioak ez dira EB osoan hedatzen (Europako markarenak ez bezala). Aukeratu egin behar da zein herrialdetan nahi den ondorioak izatea, eta herrialde horiek euren lege nazionala aplikatuko dute patentea ematean.
- Nazioarteko patentea: patentea ematearen ondorioak patentea eman duten herrialde izendatu guztietan (PCT³⁶ sistemara atxikitakoetan) hedatuko dira.

ii. Kudeaketa- eta babes-ekintzak

Jabetza industrialeko eskubideak lortzea

Titulua: borondatezko egintza bat da, eta eskubideak eratzen ditu.

Objektua eta ondorioak: jatorriz eskuratutako eskubideak nahiz eratorritakoak inskriba daitezke.

Organoen antolaketa eta eskaerak:

- Patente nazionala: OEPM da patenteak ematen dituen erakundea.
- Europako patentea: eskaera bakarra egin behar da Patenteen Europako Bulegoan (EPO). OEPMn ere aurkez daiteke.

³⁶ *Patent Cooperation Treaty.*

- Nazioarteko patentea: eskaera bakarra egin behar da OEPMn. Espainiakoak diren edo egoitza Espainian duten titularren PCT eskaerak jasotzen ditu.

Eskaerak telematikoki aurkez daitezke eta tasak ordaindu behar dira.

Jabetza industrialeko eskubideak mantentzea

Patente tituluak edo erabilgarritasun-ereduak honako betebeharrak hauek dauzka:

- Asmakuntza edo erabilgarritasun-eredua ustiatu egin behar da.
- Urteko kuotak ordaindu behar dira.
- Hirugarrenek egindako eskaerak begiratu behar dira, aintzat hartzeko patentea ematearen aurka egin daitekeela.

1.4.4.- Diseinu industrialak

i. Tresna juridikoaren deskribapena

Babesteko objektua:

- Diseinua: produktu osoaren edo zati baten itxura, produktuaren beraren edo haren apainduraren lerroen, silueten, koloreen, formaren, ehunduraren edo materialen ezaugarrien ondoriozkoa.
- Produktua: industria- edo artisautza-artikulu oro, besteak beste, produktu konplexu bat muntatzeko piezak, enbalajea, aurkezpena, ikur grafikoak eta karaktere tipografikoak barne, programa informatikoak izan ezik.
- Produktu konplexua: produktua desmuntatu eta berriz muntatzeko aukera ematen duten osagai aldagarri ugariz osatutako produktua.

Motak:

- Diseinu nazionala: Espainian eskusiboa izateko eskubideak ematen ditu. Diseinuen berriak eta bereziak izan behar dute.
 - Iraupena: 5 urte, eta gehienez ere 25 urtera arte berriro daitezke.
- Europar Batasuneko diseinua: EBko estatu kide guztietan eskubide unitarioa ematen du. Diseinuen berriak eta bereziak izan behar dute.
 - Iraupena: 5 urte, eta gehienez ere 25 urtera arte berriro daitezke.
- Europar Batasuneko erregistratu gabeko diseinua: eskusiba-eskubidea eman dezake. Diseinuen honako baldintza hauek bete behar dituzte: berriak izan behar dute (hau da, lehenengo aldiz jendaurrean jarri aurretik ez da diseinu berdinarik jarri jendaurrean); bereziak izan behar dute (inpresio orokorra jendaurrean jarri den beste produktu batek eragindako inpresioa ez bezalakoa izango da) eta dibulgazioa (trafiko normalean jarri behar da jendaurrean).
 - Iraupena: 3 urte hedatzen denetik aurrera.
 - Grazia-epaia: titularrak 12 hilabete ditu hedatzen denetik aurrera, erregistratuko duen ala ez erabakitzeko, eta, erregistratu nahi izanez gero, zein erregistro-mota eskatuko duen erabakitzeko.
 - Diseinua eskatzen ez badu, 24 hilabete ditu Europar Batasuneko erregistratu gabeko diseinuaren babes izateko.
 - Babes-eremua: babes kopiaen aurkakoa da (erregistratutako diseinuarena baino babes-eremu txikiagoa).

ii. Diseinu industrialak kudeatzeko eta babesteko ekintzak

Diseinu industrialak erregistratzea

Erregistroa: borondatezko egintza bat da, eta eskubideak eratzen ditu.

Objektua eta ondorioak: jatorriz eskuratutako eskubideak nahiz eratorritakoak inskriba daitezke.

Organoen antolaketa eta eskaerak:

- Diseinu nazionala: OEPMren³⁷ egoitza elektronikoa; aurrez aurre OEPMn; autonomia-erkidegoetako jabetza industrialeko informazio-zentroetan³⁸; edo Correos-eko bulegoetan.
- Europar Batasuneko diseinua: EUIPO, telematikoki, postaz edo mezularitza-zerbitzu bereziaren bidez.

Eskaerak telematikoki aurkez daitezke eta tasak ordaindu behar dira.

Jabetza industrialeko eskubideak mantentzea

Diseinuen gaineko eskubideen titularrak mantentze-ekintzak behar ditu:

- Titulua berritzeko izapideak egin behar dira eta tasak ordaindu.
- Hirugarrenek diseinua erregistratzeko egindako eskaerak begiratu behar dira, aintzat hartzeko erregistroaren aurka egin daitekeela.

► Europar Batasuneko erregistratu gabeko diseinua oso interesgarria da, besteak beste, modaren sektorerako. Figura horrek diseinatzaileari aukera ematen dio produktuak merkatuan duen arrakasta frogatzeko, hau da, diseinuen bizitza komertzialera egokitutako babesa eskaintzen du. Hala, titularrak produktuaren errentagarritasuna, esportatzeko aukerak, kontsumitzaileen onarpena eta abar azter ditzake.

1.4.5.- Jatorri-deitura eta adierazpen geografiko babestuak. Tresna juridikoaren deskribapena

Jatorri-deitura babestuak (JDB): izen geografikoa (eskualde batena, leku jakin batena edo herrialde batena), izen hori dagokion lurralde bateko produktua izendatzeko balio duena. Produktu horren kalitatea edo ezaugarriak batik bat edo eskusiboki ingurune geografikoarenak dira (natura- edo giza faktoreak barne), eta mugatutako eremu geografikoan ekoitzi, eraldatu eta egiten da.

Adierazpen geografiko babestuak (EGB): izen geografikoa, izen hori dagokion lurralde bateko produktua izendatzeko balio duena. Produktu horrek jatorri geografiko horren arabera kalitatea, ospea eta ezaugarri bat du, eta mugatutako eremu geografikoan ekoitzi, eraldatu eta egiten da.

Zeinu babesgarrien modalitateak: i) ardogintza-produktuei buruzkoak, ii) edari destilatuen EGBa, iii) ardoz egindako edari aromatizatuen eta ardogintza-produktuez egindako koktel aromatizatuen EGBa, eta nekazaritzaren edo elikaduraren arloko beste produktu batzuen JDBa eta EGBa

Izen geografiko babestuak ezin ditu pertsona bakar batek eskuratu, saldu, besterendu edo kargatu, eta ezin izango dira erabili antzekoak diren babestu gabeko beste produktu batzuk izendatzeko. Babesak ekoizpenetik merkaturatze-fase guztietarako balio du, aurkezpenarako, publizitaterako, etiketarako eta eraginpeko produktuen merkataritza-dokumentuetarako.

ii. Kudeaketa eta babes-ekintzak

Produktua eta adierazpen geografikoak erregistratzeko eskaera. Agintaritza eskudunari aurkeztuko zaio, eta hark Europako Batzordeari helaraziko dio. Eskaera egitean tasak ordaindu behar dira. Eskaera

³⁷ Eskaera elektronikoki aurkeztuz gero, eskaera-tasa % 15 murrizten da.

³⁸ Jabetza Industrialeko Euskadiko Bulegoak. [Lotura](#) honetan dago eskuragarri.

eragile-taldeek egiten dute eta egiaztatu egin behar dute produktuarekiko lotura profesionala, ekonomikoa eta lurralde mailakoa dutela.

1.5.- Beste eskubide eta tresna batzuk

Jabetza Intelektualeko eskubideetan hertsiki sartzen ez diren baina KSlen aktibo ukiezinak kudeatzeko tresna gisa ulertzeko eta erabiltzeko garrantzia duten beste eskubide batzuen kategorian, batez ere, enpresa-sekretua eta norberaren irudirako eskubideak hartu behar dira aintzat.

1.5.1.- Norberaren irudirako eskubidea

Pertsonak honako oinarrizko eskubide hau du, besteak beste: bere irudia argazki, film edo beste prozedura baten bidez hartu, erreproduzitu edo argitaratzea mugatu edo eragoztekoa.

► Hirugarren baten irudia hartu edo irudi-eskubidea erabili behar bada, hari baimena eskatu behar zaio irudi hori erabiliko den helburuetarako, eta beti errespetatu beharko dira oinarrizko eskubideak.

1.5.2.- Enpresa-sekretuak **i. Sekretuaren kontzeptua**

Jlren tresna	Azpi-sektorean erabiltzen den eta zenbat erabiltzen den	Erabilera-maila
Beste eskubide eta tresna batzuk: enpresa-sekretuak	<input type="checkbox"/> Erabilera-maila ertaina	erabiltzen badira edo pertsona fisiko errealek izenak erabiltzen badira ere. ✓ Izaera sekretua edo lehia balioa duten eta babesteko neurriak aplikatzen zaizkien prozedura, metodoak edo egiten jakiteko moduak.

III. Betetze-maila eta desbideraketaren hautematea, ukiezinen eskubideen kudeaketari dagokionez

3.1.- Betetze-maila aztertze metodologia

Txostenaren puntu honen helburua da lehenengo eta bigarren puntuetatik ateratako ondorioen ikuspegi konparatibo laburtu bat eskaintzea. Hala, ukiezinen kudeaketaren legezko betetze-maila optimoa eta egun euskal KSlek duten egoera alderatu nahi izan ditugu, KSI bakoitzaren betetze-mailaren irudi fidagarri eta eguneratu bat eskaintze aldera. Horren azken helburua da ukiezinen eskubideen kudeaketan egon diren desbideratzeak hauteman eta, azkenik, Basque DCCk aintzat hartu behar dituen helburuak eta lehentasunak zehaztea.

Dena den, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak proposatutako sailkapen eta metodologiari jarraitze aldera, KSletako azpisektore bakoitzaren azterketa xehatua egin beharrean, segmentu estrategikoen arabera sailkatu eta ordenatuko dira. Hori egiteko arrazoia da, lehenik eta behin, Basque DCC KSI guztiak barne hartu nahi dituen proiektu bat dela eta haren helburu nagusia, banakako helburuak betetzetik harago, hobekuntza kolektiboa, eta sektore eta azpisektore guztien erronka komun eta orokorren hautemate eta soluzioa dela. Bigarrenik, arrazoi praktikoak direla-eta ere hartu da erabaki hau; izan ere, azpisektore eta industria askok ezaugarri, behar eta erronka berberak dituzte. Ondorioz, komenigarria da horiek multzokatzea, elkarrekin aztertu eta analizatzeko.

Gainera, argitu nahi dugu azalduko diren ondorioek modu oroko batean interpretatu behar den emaitza bat islatzen dutela; izan ere, Euskadiko KSletako azpisektore bakoitzaren hurbilketa bat egin bada ere, horietako bakoitzaren betetze-maila desberdina da, kudeaketari dagokionez, nodo bakoitzaren, industria motaren eta esku hartzen duen subjektuaren arabera, merkatuan duen rola kontuan hartuta, beste faktore batzuekin batera. Ondorioz, baliteke azterketa orokorrean azpisektore baten betetze-maila baxua izatea baina, benetan, haren barnean, aktibo ukiezinak betetze-maila altu batean kudeatzen dituzten zenbait subjektu egotea.

Bestalde, ukiezinen kudeaketaren betetze-mailari dagokionez, azpisektore bakoitzari dagokion informazioa arlo horri buruz enpresa honek berak dituen ezagutzatik eta esperientziatik atera da eta lotura zuzena dute sormen-industria bakoitzak sortzen dituen ondasunen izaerarekin, azpisektoreetako nodoekin izan ditugun aurretiko bilerekin eta enpresa honek gauzatzen duen aholkularitza-jardueraren bitartez sortutako datuen bildumarekin.

Ondorioz, hirugarren puntu honetako hurrengo epigrafeetan gorago aipatutako segmentu horietako bakoitzerako alderaketa-taula bat eskainiko da. Taula horrek honako hauek jasoko ditu: segmentu estrategiko bakoitzaren beharrizan edo erronka nagusiak, beharrizan edo erronka horien adibideak, aplikatu daitezkeen lege-tresnak eta, bukatzeko, betetze-maila optimo bat lortzeko proposatzen diren ekintzak eta lege-mekanismoak.

Taula bakoitzaren amaieran, segmentu estrategiko bakoitzak ukiezinen eskubideen kudeaketan izan duen betetze-mailari buruzko laburpen grafiko bat txertatuko da, jarraian ageri den eran. Z

□ □ □ **Betetze-maila ertaina**

Ukiezinen kudeaketari dagokionez, hiru betetze-mailatan banatu eta egituratzen da analisia:

- a. **Betetze-maila altua.**
- b. **Betetze-maila ertaina.**
- c. **Betetze-maila baxua.**

3.2.- "Zuzeneko kultura" segmentuaren analisia eta betetze-maila

ZUZENEKO KULTURA			
Ikusizko arteak	Arte eszenikoak	Zuzeneko musika	Kultura-ondarea
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen literatura-, arte- eta zientzia-lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak babesteko beharra.	<i>Artelan bat; antzezlan baten testua; literatura- edo kazetaritza-testuak; koreografia; ikus-entzunezko lanak edo grabazioak; eszenografia; hainbat euskarrirako musika-konposizioak; argazkilaritza; artisten interpretazioa edo antzezpena; interpreteak edo exekutatuzaileak; argazki hutsak; fonogramak; musika- edo ikus-entzunezko ekoizpeneko zein ediziorako programak edo softwarea.</i>	Egile-eskubideak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jlko eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. ✓ Ordainsariak jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...).
Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.	<i>Areto, ikuskizun, ekitaldi, kontzertu eta jaialdien markak edo izen komertzialak; autore, konpositore, talde eta albumen markak edo izen komertzialak; antzerki-konpainien, ekoizleen, merkaturatzaileen, banatzaileen eta ekimen-antolatzaileen markak eta izen komertzialak.</i>	Lotutako eskubideak	
Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.		Markak eta izen komertzialak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI). ✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzeko izapideak eta norberaren zeinu bereizgarrien erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).
Zeinu bereizgarriei babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko (nazioan zein nazioartean).			
Jabetza intelektualeko eskubiderik sortu ezin duten eta modu industrialean ekoitzi edo fabrikatu nahi diren diseinuak edo sorkuntzak babesteko beharra (ikusizko arteak).	<i>Babestu nahi den baina originaltasun-betekizunak betetzen ez dituen eta ikuskizun batean erabiltzen den produktu baten itxura.</i>	Diseinu industrialak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Diseinu industrialak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO). ✓ Diseinu industrialen gaineko eskubideak mantentzea (berritzea eta tasak ordaintzea eta norberaren eskubideen erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).
Pertsona fisikoen irudi-eskubideen lagapenari eta erabilerari buruzko ziurtasun eta segurtasun juridikoa lortzeko beharra.	<i>Musika-bideo, artelan, argazki, kontzertu edo antzezpen batean parte hartzen duten pertsonen irudiak; aktoreen, interpreteen edo exekutatuzaileen irudiak edo ahotsa (bikoizketak); bertaratuen edo ikusleen irudiak.</i>	Irudi-eskubideak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Irudi-eskubideen titularren baimena lortzea. ✓ Ohorerako, intimitaterako eta datuen babeserako eskubideak errespetatzea.
Irudi-eskubideak ez lagatzeak edo eskubide horiek modu okerrean eskuratzeak eragindako gatazka edo eztabaida juridikoak saihestea.			
Ikuskizunetan eta zuzeneko obren erakusketetan murgiltze-teknologia berriak txertatuz berritzea.	<i>Teknologia berriak, asmakuntzak, ekoizpen- eta sorkuntza-prozesuak.</i>	Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak Enpresa-sekretuak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa). ✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuotak ordaintzea). ✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak). ✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak).



3.3.- “Transmedia-kultura” segmentuaren analisia eta betetze-maila

TRANSMEDIA-KULTURA			
Musika (errep.)	Ikus-entzunezkoak	Eduki digitalak	Liburuak
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen literatura-, arte- eta zientzia- eta ikus-entzunezko lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak babesteko beharra.</p> <p>Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.</p>	<p><i>Ikus-entzunezko lanak eta grabazioak; gidoiak; hainbat euskarritako musika-konposizioak (papera, fonograma, digitala...); koreografiak; musika- edo ikus-entzunezko ekoizpeneko zein ediziorako programak edo softwarea; artistek, interpreteek edo exekutatzailleek musika-konposizioak edo ikus-entzunezko lanak interpretatzea; irrati emisioak edo transmisioak; ekoizpenak; edizioak, hainbaten artean egindako ekoizpenak...</i></p>	<p>Egile-eskubideak</p> <p>Lotutako eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ JIko eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. ✓ Ordainsaria jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...).
<p>Beste lan batzuetan oinarritutako “transmedia-sorkuntzen” kontzepzioa eta prestaketa indartzeko beharra.</p>	<p><i>Itzulpenak, egokitzapenak, berrikusketak, eguneratzeak, oharra, laburbildumak, laburpenak, pasarteak, musika-moldaketak eta literatura-, arte-, zientzia edo ikus-entzunezko lanen bestelako eraldaketak.</i></p>	<p>Egile-eskubideak</p> <p>Lotutako eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jatorrizko obraren egile-eskubideen gaineko eskubideak, lagapenak edo lizentziak modu zilegian lortzea (nagusiki, eraldatzeko eskubidea). ✓ Eratorritako lana babestea (erregistroan inskribatzea, transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak...).
<p>Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p> <p>Zeinu bereizgarriei babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko.</p>	<p><i>Artista, ekoizle edo banatzaile baten markak edo izen komertzialak; film baten, saga baten edo ikus-entzunezko grabazio baten marka edo izen komertzialak; konpositore, musikari, talde edo album baten markak edo izen komertzialak; jaialdi, ekimen edo forum baten markak edo izen komertzialak; autore, argitaletxe edo saltoki baten markak edo izen komertzialak; literatura-, arte- edo zientzia-lan baten zein bertako pertsonaien markak edo izen komertzialak.</i></p>	<p>Markak eta izen komertzialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI). ✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzeko izapideak eta norberaren zeinu bereizgarrien erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zainitzea).
<p>Europar eta nazioartean eskaintzen diren produktuak eta zerbitzuak babestu, identifikatu eta bereizteko beharra (nazioartekotzea).</p>	<p><i>Musika-bideo batean, ikus-entzunezko lan batean, ikus-entzunezkoen grabazio batean, argazki batean edo artelan batean ageri diren pertsonen irudiak edo ahotsak; autorearen edo sortzailearen irudiak;</i></p>	<p>Irudi-eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Irudi-eskubideen titularren baimena lortzea. ✓ Ohorerako, intimitaterako eta datuen babeserako eskubideak errespetatzea.

TRANSMEDIA-KULTURA

Musika (errep.)	Ikus-entzunezkoak	Eduki digitalak	Liburuak
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Irudi-eskubideak ez lagatzeak edo eskubide horiek modu okerrean eskuratzeak eragindako gatazka edo eztabaida juridikoak saihestea.</p>	<p><i>literatura- edo zientzia-lan batean txertatutako pertsonen irudiak edo argazkiak; bertaratuen edo ikus-entzuleen irudiak.</i></p>		
<p>Berrikuntza, teknologia, asmakuntza, ekoizpen-prozesua, programa, software, know how eta enpresa-antolakuntza berriak babesteko beharra-</p>	<p><i>Teknologia edo asmakizun berriak, know how, musikaren edo ikus-entzunezkoen ekoizpenerako ordenagailu-programa, software edo bestelako asmakuntza berriak, ekoizpen industrialeko prozesuak edo enpresa-antolakuntzako forma berritzaileak.</i></p>	<p>Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak</p> <p>Enpresa- sekretuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa). ✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuotak ordaintzea). ✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak). ✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak).
<p>Euskarriak digitalizatzea: sorkuntzak zatikatzea eta ekoizpena enpresa eta konpainia handietan kontzentratzea, kontsumo-ohiturak aldatzea.</p> <p>Plataforma eta kanal digital berrietarako produktu, sorkuntza eta zerbitzu espezifikokoak garatzea.</p>	<p><i>Euskarri digital eta plataforma berriak agertzea (informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta, nagusiki, Interneten, oinarrituak). Adibidez, Netflix, HBO, Spotify, Youtube..</i></p> <p><i>Kontsumo-hobespen eta -ohitura berriak agertzea (edukiak etxean kontsumitzea).</i></p>	<p>Egile-eskubideak eta lotutako eskubideak</p> <p>Datu-baseak</p> <p>Enpresa-sekretuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egile-eskubideek eta lotutako eskubideek aukera ematen dute euskarri digitalen, elektronikoen edo etorkizunean gara litezkeen euskarrien jabetza intelektualeko eskubideak babesteko. ✓ Datu-baseen eta webguneen <i>sui generis</i> babesak. ✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak).
<p>Tokiko, eskualdeko edo nazioko eragileak nazioartekotzeko beharra, nagusiki ekoizpenaren eta banaketaren esparruan (sortzaileen edukia azken kontsumitzaileenganaino eramateko zailtasunak)</p>	<p><i>Estatuko eta nazioarteko ekoizpen partekatuko estrategiak indartzea.</i></p> <p><i>Merkatu berrietan sartzeko lankidetzak</i></p>	<p>Egile-eskubideak eta lotutako eskubideak</p> <p>Markak eta izen komertzialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lankidetzak-akordioak sinatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...). ✓ Ikus-entzunezko lanak elkarrekin ekoizteko akordioak edo kontratuak sinatzea. ✓ Zeinu bereizgarriak nazioz gaindiko erregistroetan inskribatzea (EUIPO, OMPI).
Betetze-maila globala			



Betetze-maila baxua

3.4.- “Diseinu-manufaktura” segmentuaren analisia eta betetze-maila

DISEINU-MANUFAKTURA			
Artisautza	Moda	Diseinu industrialak (habitata)	
Hautemandako beharrian eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen literatura- eta arte-lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak ere babesteko beharra.</p> <p>Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.</p>	<p><i>Arte-sorkuntzak eta artelanak (museo batean ikusgai dagoen jantzi baten diseinua); literatura-lanak (modari buruzko kazetaritza- edo literatura-testuak); argazkiak; planoak, maketak, krokisak eta proiektuak; dekorazio-artearen arloko lanak edo sorkuntzak.</i></p>	<p>Egile-eskubideak</p> <p>Lotutako eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ JIko eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. ✓ Ordainsaria jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...).
<p>Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p> <p>Zeinu bereizgarriak babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko.</p> <p>Nazioarteko joera eta merkatu berrietara irekitzea</p> <p>Markaren ospea indartzea.</p>	<p><i>Merkatu zehatz batean garrantzia lortu duen produktu edo zerbitzu baten markak edo izen komertzialak; modaren sektorean zerbitzuak ematen dituzten moda-firmen edo -enpresen markak edo izen komertzialak; diseinuaren arloko enpresa edo profesionalen markak edo izen komertzialak; artisau baten edo produktu zehatz baten markak edo izen komertzialak.</i></p>	<p>Markak eta izen komertzialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI). ✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzeko izapideak eta benetako erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea). ✓ Nazioartekotzeko nahia: zeinu bereizgarriak eta logotipoak nazioz gaindiko erregistroetan inskribatzea, Europako edo nazioarteko merkatuan seguru aritzeko.
<p>Berrikuntza teknologikoaren aurrean eta berrikuntza horrekin bereizteko gaitasuna areagotzeko beharra.</p> <p>Asmakuntza, prozesu eta aplikazio berri horiek juridikoki eta trafiko ekonomiko eta komertzialean babesteko beharra.</p> <p>Teknologia berriak (big data, esaterako) erabiltzea kontsumitzaileen gustuak, hobespenak eta aukerak aurreikusteko.</p>	<p><i>Teknologia eta asmakuntza berriak; know how; big data teknologiak erabiltzea bezeroen gustu eta hobespenak aurreikusteko, kanal elektronikoa eta digital berrien erabilera (e-commerce, marketplace); asmakuntza berriak jantzi baten diseinuan; babestu nahi den jarduera berri edo asmamen-jarduera baten bidez egiten den artisautza-produktu bat.</i></p>	<p>Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak</p> <p>enpresa-sekretuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa). ✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuotak ordaintzea). ✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak). ✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak).
<p>Material eta diseinu berrien erabilerak eta ikusizko berrikuntzetan zein berrikuntza grafikoetan oinarritutako negozio-eredu berriak bultzatzeko beharra.</p> <p>Erabiltzen diren materialetan eta ekoizpen-prozesuetan jasangarritasuna bilatzea.</p>	<p><i>Produktu baten diseinua edo itxura (jantzi baten diseinua, esaterako); zeramikazko produktu baten, bitxi baten, musika-tresna baten edo artisautzako beste ondasun edo produktu batzuen diseinu zehatz eta bereizgarria.</i></p>	<p>Diseinu industrialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Diseinu industrialak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO). ✓ Diseinu industrialen gaineko eskubideak mantentzea (berritzea eta tasak ordaintzea eta norberaren eskubideen erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).

Betetze-maila globala



Betetze-maila baxua

3.5.- “Habitataren eta eraikuntzaren arloko sormen-zerbitzuak” segmentuaren analisia eta betetze-maila

HABITATAREN ETA ERAIKUNTZAREN ARLOKO SORMEN-ZERBITZUAK			
Arkitektura	(Barne-)diseinua	Diseinua (industrial-a-habitata)	
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen arte- eta zientzia-lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak ere babesteko beharra.</p> <p>Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.</p> <p>Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p> <p>Zeinu bereizgarrii babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko.</p> <p>Sektorearen ikusgaitasuna hobetzea.</p> <p>Euskal enpresak nazioartekotzeko eta azken merkatu bertikaletan bereizteko beharra.</p> <p>Teknologia berriak erabiltzea (berrikuntza) merkatuan bereizteko elementu gisa.</p> <p>Eraikuntzaren arloan, tresna berriak erabiltzen ikastea.</p> <p>Asmakuntza, prozesu eta aplikazio berri horiek juridikoki eta trafiko ekonomiko eta komertzialean babesteko beharra.</p> <p>Euskal enpresak nazioartekotzeko eta azken merkatuetan bereizteko beharra, merkatu berrietara ireki ahal izateko.</p> <p>Material eta diseinu berrien erabilerak eta ikusizko berrikuntzetan zein berrikuntza grafikoetan oinarritutako negozio-eredu berriak bultzatzeko beharra.</p> <p>Jasangarritasun- eta funtzionaltasun-joerak diseinuan eta negozio-ereduetan.</p>	<p><i>Jlren bidez babes daitezkeen artelanak eta gainerako sorkuntzak (adibidez, dekorazio-arteak); argazkiak; argazki hutsak; arkitekturako sorkuntzak eta lanak; planoak, maketak, krokisak eta proiektuak; diseinu- eta marrazketa-programak eta -softwarea.</i></p> <p><i>Merkatuan ospea lortu duen edo bereizi nahi den produktu edo zerbitzu baten markak edo izen komertzialak; diseinu-enpresa edo -profesionalen markak eta izen komertzialak; arkitekto baten, arkitektura-enpresa baten edo arkitekturarekin erlazionatutako jarduerak eta zerbitzuak egiten dituzten sozietate edo erakundeen markak edo izen komertzialak; arkitektura-sorkuntza edo -lanaren beraren markak edo izen komertzialak.</i></p> <p><i>Berrikuntza dakarten asmakuntzak; diseinu-prozesuari edo enpresa antolatzeke moduari buruzko informazioa (know how); diseinu, teknika edo jarduera berritzaileak eta asmakuntza berriak dakartzaten arkitektura-lanak edo sorkuntzak; eraikuntzaren arloko tresna eta teknologia berriak (esaterako, BIM).</i></p> <p><i>Produktu baten diseinua edo itxura (mahai baten diseinua eta ezaugarriak, kasurako); arkitektura-sorkuntza baten diseinua eta itxura; aurretik zeuden diseinuei joera berriak aplikatzea...</i></p>	<p>Egile-eskubideak</p> <p>Lotutako eskubideak</p> <p>Markak eta izen komertzialak</p> <p>Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak</p> <p>Enpresa-sekretuak</p> <p>Diseinu industrialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ JIko eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. ✓ Ordainsaria jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...). ✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI). ✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzeko izapideak eta benetako erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea). ✓ Nazioartekotzeko nahia: zeinu bereizgarriak eta logotipoak nazioz gaindiko erregistroetan inskribatzea, Europako edo nazioarteko merkatuan seguru aritzeko. ✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa). ✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuotak ordaintzea). ✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak). ✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak). ✓ Nazioartekotzeko nahia: nazioz gaindiko erregistroak erabiltzea; estatus gaineko lagapenak edo lizentziak lortu edo lagatzea. ✓ Diseinu industrialak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO). ✓ Diseinu industrialen gaineko eskubideak mantentzea (berritzea eta tasak ordaintzea eta norberaren eskubideen erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).
Betetze-maila globala			



Betetze-maila ertaina

3.6.- “Publizitate eta komunikazioko sormen-zerbitzuak” segmentuaren analisia eta betetze-maila

PUBLIZITATEAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO SORMEN-ZERBITZUAK			
Publizitatea	Diseinu grafikoa	Hizkuntzaren industriak	Enprestarako ikusizko artea, arte eszenikoak eta musika
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlel lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Euskarri berriak (digitala) eta edukien tipologia berriak</p> <p>Subjektu, autore eta sortzaile berriak (<i>microinfluencer</i> izenekoak, kasurako)</p> <p>Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen literatura-, arte- eta zientzia- eta ikus-entzunezko lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak babesteko beharra.</p> <p>Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.</p>	<p><i>Literatura-lanak, eratorritako lanak (itzulpenak eta interpretazioak); aplikazioak, softwarea edo ordenagailu-programak, ikus-entzunezko lanak eta grabazioak (publizitate-kanpainak edo telebista, Internet eta irratiko iragarkiak); iragarkien formatu eta zerbitzu berriak (native content, branded content, podcast, live, bideoak...); publizitate- eta sustapen-kanpainetarako musika-konposizioak edo melodiak; argazkiak eta argazki hutsak.</i></p>	<p>Egile-eskubideak</p> <p>Lotutako eskubideak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jlel eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. ✓ Ordainsaria jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea. ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...). ✓ Datu-baseen eta webguneen <i>sui generis</i> babesa. ✓ <u>Edukien euskarri eta tipologia berriak</u>: JIL euskarri berri horiei ere aplikatzen zaie eta horiek babestu eta erregistratzeko aukera barne hartzen du. ✓ <u>Subjektu, autore eta sortzaile berriak</u>: beharrezkoa da askotariko subjektuen arteko harremanak juridikoki arautzea. <i>Influencer</i> izenekoan kasuan, behar bezala zehaztu behar dira publizitate-kanpainaren baldintza espezifikoak eta sortutako edukiaren gaineko jabetza intelektualeko eskubideak, bai eta babestutako edukien edo markaren beraren erabilerrari dagozkion lagapenak edo lizentziak ere.
<p>Beste sormen-sektore batzuekin lankidetzan aritzea eta komunikazio-estrategia berriak erabiltzea.</p> <p>Lankidetzetan edo hirugarrenekin egiten diren akordioetako edukiak, sorkuntzak, asmakuntzak eta markak edo zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p>	<p><i>Beste sektore batzuekin (esaterako, transmedia edo zuzeneko kultura) lankidetzan aritzea eta komunikazio-estrategia berriak arte eszenikoetan, ekitaldietan, ikus-entzunezkoetan edo bideo-jokoetan.</i></p>	<p>Askotarikotasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...). ✓ Jatorrizko obraren egile-eskubideen gaineko eskubideak, lagapenak edo lizentziak modu zilegian lortzea (nagusiki, eraldatzeko eskubidea). ✓ Eratorritako lana babestea (erregistroan inskribatzea, transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak...). ✓ Asmakuntza edo erabilgarritasun-eredua babestu eta erregistratzea. ✓ Merkataritzako lankidetzak-akordioak beste sektore edo azpisektore batzuetako enpresekin. Akordio horietan edukiak eta jabetza intelektual eta industrial propioak babesteko eta zaintzeko klausulak sartzea.
<p>Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p> <p>Zeinu bereizgarriak babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo</p>	<p><i>Merkatuan ospea lortu duen, babestu nahi den eta lehiakideetatik bereizi nahi den produktu edo zerbitzu baten markak edo izen komertzialak; publizitate-agentzien, publizitate-kanpaina partikularren, edo publizitateko edo merkatuak aztertze</i></p>	<p>Markak eta izen komertzialak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI). ✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzeko izapideak eta norberaren zeinu bereizgarrien erabilera kaltetu lezaketen

PUBLIZITATEAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO SORMEN-ZERBITZUAK

Publizitatea	Diseinu grafikoa	Hizkuntzaren industriak	Enpresetarako ikusizko artea, arte eszenikoak eta musika
Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko.</p> <p>Marka nazioartekotu eta zenbait merkatutan espezializatzeko beharra.</p> <p>Marka bereizteko eta enpresaren izen ona areagotzeko joera berriak (<i>story telling</i> esaterako).</p> <p>Teknologia berriak erabiltzea publizitate- eta komunikazio-estrategiak pertsonalizatzeko (<i>microtargeting</i>), kontsumitzaileengana eta haien hobespenetara hurbiltzea xede.</p> <p>Teknologia berriak erabiltzea kanpainei buruzko metrikak, datuak eta estatistikak lortzeko.</p> <p>Berrikuntza, teknologia, asmakuntza, ekoizpen-prozesua, programa, software, <i>know how</i> eta enpresa-antolakuntza berriak babesteko beharra.</p> <p>Espezializatzeko eta merkatu-nitxo berrietara egokitzeko beharra.</p> <p>Jabetza intelektualeko eskubiderik sortu ezin duten eta modu industrialean ekoitzi edo fabrikatu nahi diren diseinuak edo sorkuntzak babesteko beharra.</p> <p>Eduki, diseinu eta euskarrien tipologia berriak (<i>native content, branded content, podcast, live, bideoak, etab.</i>)</p>	<p><i>teknikak edo metodoak; enpresa, aplikazio, software, ordenagailu-programa, itzulpen-zerbitzu, hizkuntza-zerbitzu edo interpretazio-zerbitzuen markak edo izen komertzialak...</i></p> <p><i>Patente edo erabilgarritasun-ereduen bidez babes daitezkeen asmakuntzak edo berritasunak (merkatua aztertzekeo tresna edo programa berriak, salmenta- edo sustapen-programak...); diseinu-prozesuari edo enpresa antolatzekeo modu zehatzei buruzko informazioa; algoritmoak; itzulpen automatikorako asmakuntza edo erabilgarritasun-eredu berritzaile bat; hizkuntzak irakastekeo metodologia edo teknika berritzaile bat.</i></p> <p><i>Babestu nahi den produktu edo zerbitzu baten diseinua edo itxura (aplikazio baten edo ordenagailu-programa baten interfazean elementuak nola kokatu edo diseinatzen diren, kasurako); publizitate-kanpaina baten diseinua edo itxura grafikoa.</i></p>	<p>Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak</p> <p>Enpresa-sekretuak</p> <p>Diseinu industrialak</p>	<p>hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).</p> <p>✓ Hirugarrenekin eraikitzen diren harreman eta akordioetan markak eta gainerako zeinu bereizgarri propioak babestea, bai eta tresna juridiko egokiak erabiliz lizentziak edo lagapenak baimentzea (kontratuak, kasurako).</p> <p>✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa).</p> <p>✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuota ordaintzea).</p> <p>✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak).</p> <p>✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak).</p> <p>✓ Merkataritzako lankidetzak-akordioak sektore bereko edo beste sektore batzuetako subjektu edo enpresekin, garatutako teknologiak, metodoak edo asmakuntzak lagatzea aurreikusten denean.</p> <p>✓ Diseinu industrialak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO).</p> <p>✓ Diseinu industrialen gaineko eskubideak mantentzea (berritzea eta tasak ordaintzea eta norberaren eskubideen erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).</p>
Betetze-maila globala			



Betetze-maila ertaina

3.7.- “Beste industria batzuetan berritzekeo sormen-zerbitzuak” segmentuaren analisia eta betetze-maila

BESTE INDUSTRIA BATZUETAN BERRITZEKO SORMEN-ZERBITZUAK

Kultura-kudeaketa eta -bitartekaritza	Diseinua (zerbitzuak, arkitektura)	Bideo-jokoak eta eduki digitalak
Hautemandako beharrian eta erronka nagusiak	Adibideak	Jlei lotutako lege-tresnak
Hautemandako beharrian eta erronka nagusiak	Adibideak	Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak
<p>Jabetza intelektualeko eskubideak sor ditzaketen literatura-, arte- eta zientzia-lanak, bai eta adimenaren emaitza diren gainerako sorkuntzak babesteko beharra.</p> <p>Sorkuntza horiei trafiko juridiko eta ekonomikoan (nazioan eta nazioartean) segurtasuna emateko beharra.</p> <p>Sormen-forma, lan eta euskarri berriak babesteko beharra (zailtasunak).</p>	<p><i>Literatura-lanak (gidoia, storyboard, trama, pertsonaiak...), artelanak (diseinu grafikoa, interfazea); ikus-entzunezko lanak (zinematika, bideoak); argazkiak; soinua (musika-konposizio propioak, soinu-bandak...); eratorritako lanak (egokitzapenak, itzulpenak, sekuelak, prekuetak, sagak...); programazioa (softwarea, eskuliburuak, dokumentazioa, prestaketa-dokumentuak...)</i></p>	<p style="text-align: center;">Egile-eskubideak</p> <p style="text-align: center;">Lotutako eskubideak</p> <p style="text-align: center;">Diseinu industrialak</p> <p>✓ Jlko eskubideak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea. Espainian bideo-joko baten erregistro oso eta bateratua lortzeko zailtasunak. Literatura-eskubideak (gidoia, <i>storyboard</i>, trama...), alderdi artistikoa (diseinu grafikoa, interfazea...), ikus-entzunezko lana (zinematika, testuak), soinua (musika-konposizioak propioak edo beste batzuenak), programazioa (softwarea etab.) bereiz erregistratzeko beharra.</p> <p>✓ Ordainsaria jasotzeko eskubideak Kudeaketa Kolektiboko Erakundeen bitartez kudeatzea.</p> <p>✓ Eskubideen transmisioa eta trazabilitatea oinarri duten babes-mekanismoak (kontratuak, lagapenak, lizentziak...).</p>
<p>Trafiko ekonomiko eta juridikoan erabili ohi diren zeinu bereizgarriak babesteko beharra.</p> <p>Zeinu bereizgarriak babes-esparru bat emateko beharra, zeinua edo irudikapena ondasunei zein ematen edo fabrikatzen diren produktu eta zerbitzuei lotu ahal izateko.</p> <p>Sektorearen ikusgaitasuna hobetzea.</p> <p>Euskal enpresak nazioartekotzeko eta merkatuetan bereizteko beharra.</p>	<p><i>Merkatuan ospea lortu duen edo bereizi nahi den produktu edo zerbitzu baten markak edo izen komertzialak; bideo-joko, saga, kontsola, pertsonaia edo genero baten markak edo izen komertzialak; garapen-, sorkuntza-, banaketa edo fabrikazio-enpresen markak edo izen komertzialak.</i></p>	<p style="text-align: center;">Markak eta izen komertzialak</p> <p>✓ Zeinu bereizgarriak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO, OMPI).</p> <p>✓ Zeinu bereizgarrien gaineko eskubideak mantentzea (benetako erabilera, berritzea izapideak eta benetako erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).</p> <p>✓ Nazioartekotzeko nahia: zeinu bereizgarriak eta logotipoak nazioz gaindiko erregistroetan inskribatzea, Europako edo nazioarteko merkatuan seguru aritzeko.</p>
<p>Berrikuntza (teknologikoa eta ez teknologikoa) bitarteko soil gisa erabiltzea sektoreak biziraun dezan.</p> <p>Asmakuntza, prozesu eta aplikazio berri horiek juridikoki eta trafiko ekonomiko eta komertzialean babesteko beharra.</p> <p>Euskal enpresak nazioartekotzeko eta azken merkatuetan bereizteko beharra, merkatu berrietara ireki ahal izateko.</p> <p>Berrikuntza-zerbitzuak osatzeko zerbitzu berezitu berriak eskaintzeko beharra.</p>	<p><i>Nolabaiteko asmamena eskatzen duten asmakuntzak. Diru-sarrerak lortzeko modu berriak; produktu edo zerbitzu berriak; ekoizpen- edo negozio-prozesu berriak; teknologiak edo metodologiak garatzeko berrikuntza-proiektuak.</i></p> <p><i>Bideo-kontsola berri bat, motor grafiko berri bat, ekoizpen- edo joko-teknologia berri bat; aurretik existitzen diren produktu edo zerbitzuen erabilgarritasun-ereduak.</i></p> <p><i>Bideo-jokoaren diseinu-prozesuari buruzko informazioa; enpresa-antolaketa buruzko berriak; aplikatutako teknika berriak...</i></p>	<p style="text-align: center;">Patenteak eta erabilgarritasun-ereduak</p> <p style="text-align: center;">Enpresa-sekretuak</p> <p>✓ Lortzea eta erregistratzea (naziokoa, Europakoa, nazioartekoa).</p> <p>✓ Eskubideak mantentzea (benetako ustiapena, urteko kuota ordaintzea).</p> <p>✓ Informazioa isilpean gordetzea eta konfidentzialtasuna (NDA agiriak).</p> <p>✓ Segurtasun-neurriak (fisikoak eta juridikoak).</p> <p>✓ Nazioartekotzeko nahia: nazioz gaindiko erregistroak erabiltzea; estatus gaineko lagapenak edo lizentziak lortu edo lagatzea.</p> <p>✓ Merkataritzako akordioak edo kontratuak beste sektore batzuetako enpresa eta eragileekin. Sorkuntza edo asmakuntza propioak babesteko beharra. Lizentziak, eskubide-lagapenak eta abar adosteko aukera.</p>
<p>Material eta diseinu berrien erabilerak eta ikusizko berrikuntzetan zein berrikuntza grafikoetan oinarritutako negozio-eredu berriak bultzatzeko beharra.</p>	<p><i>Bideo-joko baten karatularen diseinua edo itxura; bideo-kontsola baten diseinua, itxura edo interfazea; bitartekaritza, laborategien</i></p>	<p style="text-align: center;">Diseinu industrialak</p> <p>✓ Diseinu industrialak dagozkien erregistroetan inskribatu eta erregistratzea (OEPM, EUIPO).</p> <p>✓ Diseinu industrialen gaineko eskubideak mantentzea (berritzea eta tasak ordaintzea eta norberaren</p>

BESTE INDUSTRIA BATZUETAN BERRITZEKO SORMEN-ZERBITZUAK

Kultura-kudeaketa eta -bitartekaritza	Diseinua (zerbitzuak, arkitektura)		Bideo-jokoak eta eduki digitalak
<p>Hautemandako beharrizan eta erronka nagusiak</p> <p>Pertsona fisikoen irudi-eskubideen lagapenari eta erabilerari buruzko ziurtasun eta segurtasun juridikoa lortzeko beharra.</p> <p>Irudi-eskubideak ez lagatzeak edo eskubide horiek modu okerrean eskuratzeak eragindako gatazka edo eztabaida juridikoak saihestea.</p>	<p>Adibideak</p> <p><i>diseinua, prestakuntzarako bideo-jokoak, etab.</i></p> <p><i>Programaziorako edo digitalizaziorako erreferentzia gisa pertsona fisikoak erabiltzen badira, horien irudi-eskubideak, bai eta bikoizketen kasuan ahotsak erabiltzen badira edo pertsona fisiko errealek izenak erabiltzen badira ere.</i></p>	<p>Jlei lotutako lege-tresnak</p> <p>Irudi-eskubideak</p>	<p>Betetze-maila optimoa lortzeko gomendatutako ekintzak</p> <p>eskubideen erabilera kaltetu lezaketen hirugarrenen eskubideak inskribatzeko eskaerak zaintzea).</p> <p>✓ Irudi-eskubideen titularren baimena lortzea.</p> <p>✓ Ohorerako, intimitaterako eta datuen babeserako eskubideak errespetatzea.</p>
Betetze-maila globala			

□ □ □

Betetze-maila baxua

IV. Ondorioak

Euskal KSlen egungo egoeraren eta ukiezinen kudeaketaren betetze-maila optimoaren arteko alderaketa egin ondoren, ondorio hauek baliatu nahi ditugu euskal KSlen kudeaketa hobetzeko aintzat hartu behar diren helburuak eta lehentasunak zehazteko, hain zuzen ere ukiezinen babesari dagokionez. Horretarako, aurreko puntuetan gauzatutako analisiaren bitartez eskuratu dugun informazioa erabiliko dugu.

Hala, datozen lerroetan, helburu eta lehentasun nagusiak laburtuko dira, lau bloketan banatuta.

4.1.- Lehen helburua: KSletan ukiezinak babestu eta zaintzeari buruzko prestakuntza eman eta kontzientzia sortzea

Lehenengo helburu orokorra ezinbestekoa da gainerakoak erdiesteko. KSletan aritzen direnek industria bakoitzeko jardueraren bitartez sortzen diren aktibo ukiezinak ezagutu ditzaten eta aktibo horiek ondare-aktibo gisa duten balioaren jakitun izan daitezzen beharrezkoa den informazioa KSlen esku jartzean datza. Horrez gain, aktibo horiek behar bezala babestu eta kudeatzeko beharrari buruzko eta kudeaketa eta babes hori mailarik altuenean gauzatu ahal izateko eskuragarri dauden bitartekoei buruzko informazioa ere eman beharko da. Informazio hori jabetza intelektual eta industrialeko eskubide eta printzipioak ulertzeko eta horiei buruzko prestakuntza jasotzeko prozesu baten barruan kokatuko da.

Edozein ondasunen eskubideak kudeatzeko, izan jatorrizko babes-esparruan, izan hura merkaturatu eta ustiatzean, ezinbestekoa da hari buruzko informazio eta ezaugarri guztia ezagutzea, batez ere haren izaera, eskubide edo kargei buruzkoa. Jabetza intelektual eta industrialaren kasuan, kasuan kasuko izaeraren araberrako ezaugarriak ezagutu behar ditugu, baita haien merkaturatzeari dagokionez legeak ezartzen dituen baldintzak eta mugak ere, ondare-eskubideak transmititzeko sektorean erabiltzen diren askotariko formulak ahaztu gabe.

Bada, kudeaketa egokia gauzatzeko informazio hori izatearen garrantzia dela eta, KSlek jabetza intelektual eta industrialeko aktiboak kudeatzeko politika bat izan beharko dute, eta politika horrek egoera eta aukera onuragarrienak aurreikusi beharko ditu, berme guztiekin, eskubideak lagatzeko kateak alderdi guztientzat segurtasun juridiko eta errentagarritasun handienak dituela ziurtatzeko; hala, eskubideen ustiapena ahalik eta errentagarriena izan ahalko da.

Bestalde, jakinarazi behar den informazioa aldatu egingo da hartzaileak nor diren eta zer behar dituzten kontuan hartuta. Hori horrela da jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen gaineko informazioak oinarritzko gaiak edo informazio orokorra dituelako; hori ezagutzea ezinbestekoa da kudeaketaren kalitatea gutxieneko maila orokor batzuetara irits dadin. Alabaina, KSletako azpisektore zehatz batzuei eragiten dieten gai zehatzagoak ere badaude, azpisektore horietan sortzen diren ukiezinen motaren eta horien merkaturatzea kudeatzeko moduaren eraginez (esaterako, ikus-entzunezkoen edo musikaren industria). Gainera, garrantzitsua da sensibilizazio- eta prestakuntza-ekintza azpisektoreetako eragile profesionaleri zuzentzea; izan ere, era horretan, bakoitzaren ukiezinen merkaturatzearekin erlazioatutako negoziatioetan sor litezkeen interes-gatazkak saihestu ahalko dira, baita horiei hobeto aurre egin ere.

Bestalde, aktibo ukiezinak behar bezala babestuta eta kudeatuta egon arren, baliteke hirugarrenen ekintzek kalteak eragitea. Ondorioz, eskubideen errentagarritasuna ahalik eta handiena dela bermatzeko, beharrezkoa da horiek babesteko neurri egokiak hartzea, hirugarrenek baimenik gabe erabili edo ustiatu dituztelako izandako urraketan aurrean seguru egon daitezten. Hala, funtsezkoa da eskubideak nola urratzen diren eta horien aurrean aktiboak babesteko zer bide dauden jakitea.

Laburbilduz, KSletako aktibo ukiezinaren ondare-eskubideen kudeaketari buruzko sentsibilizazioaren helburu nagusiak honako bi helburu espezifiko hauek erdiestea eskatzen du:

Helburuak		Garrantzia
Orokorrak	KSletako aktibo ukiezinaren ondare-eskubideen kudeaketari buruz sentsibilizatzea	Altua
Espezifikoak	Ondasun mota horren izaera aintzat hartuta diseinatu den jabetza intelektual eta industrialeko aktiboak kudeatzeko politika bat izatea, maila orokorrean eta azpisektoreka.	Altua
	KSletan prestakuntza teknikoa ematea hirugarrenek jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratuz gero zuzenbideak eskaintzen dituen defentsa-ekintzei buruz.	Altua

4.2.- Bigarren helburua: KSlei tresna egokiak ematea beren aktibo ukiezinak behar bezala kudeatu ahal izan ditzaten

Lehenago ere esan denez, eskubideak modu baketsuan eduki eta ustiatzen direla bermatzea da edozein izaeratako eskubideen titularraren abiapuntua, baita ondasun ukiezinaren kasuan ere. Hori dela eta, ulertu beharra dago ezinbestekoa dela aktiboak eta horien eskubideak legez babestea eta aktibo horiek ustiatzerakoan eskubideak transmititzeko estrategia egokia aplikatzea.

Ildo horretatik, proiektu honen bigarren helburua KSlei aktibo ukiezin mota bakoitza behar bezala babestu eta kudeatzeko beharrezkoak diren bitartekoak, tresnak eta instrumentuak ematea da. Baliabide horiei esker (helburu nagusi gisa deskribatu diren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzekin batera), KSlek jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak ulertu ahalko dituzte, baita horiek behar bezala kudeatzeak duen garrantzia ere, KSletan sortzen diren aktibo ukiezinak ondare-aktiboa diren heinean. Hala, gai izango dira kasuan kasu aktibo ukiezin mota bakoitza eta horietatik eratorzen diren edo erator litezkeen eskubideak identifikatzeko, baita horien babesa bermatzeko ere, bai sorreran edo jatorrian, bai merkaturatzean.

Beraz, bereizi egin beharra dago baliabideak nola erabiltzen diren, kontuan hartuta i) aktibo ukiezinak sortzeko unean edo horien jatorrian gauden edo ii) merkaturatzen diren unean gauden. Hala, lehenengo kasuan, aktibo ukiezinak identifikatu eta sailkatzeko tresnak erabili beharko ditugu, baita interesdunen alde eskuragarri dauden administrazio-mekanismoei buruzko informazioa ematen diguten tresnak ere. Era horretan, lan zehatz baten autoretzari buruzko froga kalifikatua sortuko da (jabetza intelektualala) edo, bestela, tituluaren eskuratzea eskainiko da (jabetza industrial). Bestalde, bigarren kasuan (eskubideak merkaturatzea), KSiren esku jarritako bitartekoak eta tresnak egongo dira, eskubideak behar bezala transmititzen direla ziurtatzeko. Horrek lotura du hirugarren helburuarekin.

Horri guztiari esker, aktibo ukiezinetik eratorzen diren eskubideak edukitzea eta erabiltzea ahalbidetzen duen babes legal bat sortzen da, edukia morala, ekonomikoa edo ondarezkoa izan, eta erabilera baketsuaren terminoetan.

Ikusi denez, KSlei aktibo ukiezinak behar bezala kudeatzeko tresnak ematea xede duen helburu orokor hau lortzeko, beharrezkoa da aurretik helburu espezifikoak erdiestea:

Helburuak		Garrantzia
Orokorrak	KSlen aktibo ukiezinak kudeatzeko balioko duten tresnak ematea, jabetza eta ustiapen baketsua ziurtatze aldera.	Altua
Espezifikoak	Aktibo ukiezinak sorreratik bertatik babestea ahalbidetuko duten tresnak ematea.	Altua
	Aktibo ukiezinak merkaturatze-unean babestea ahalbidetuko duten tresnak ematea.	Altua

4.3.- Hirugarren helburua: sektoreei eskubideak transmititu eta eskuratzeko estrategia egokia ematea, sektorean ustiapen baketsua lortzeko

Txosten honetako hainbat ataletan adierazi den eran, KSlak segmentu estrategikoen arabera sailkatzen dira (zuzeneko kultura, transmedia, diseinu-manufaktura, habitataren eta eraikuntzaren arloko sormen-zerbitzuak, publizitate- eta komunikazio-zerbitzuak eta beste industria batzuetan berritzekoak); horiek, beren aldetik, azpisektoretan banatuta daude (arte eszenikoak, ikusizko arteak, arte plastikoak, kultura-ondarea, musika, ikus-entzunezkoak, eduki digitalak, liburuak, artisautza, moda, diseinu industrialak, arkitektura, publizitatea, softwarea, bideo-jokoak, etab.).

Bada, zentzu horretan, KSI guztiek jabetza intelektual eta industrialaren kudeaketari buruzko oinarritzko ezagutzak dituztenean, prestakuntza subjektu talde bakoitzaren beharretara egokitu beharko da; hala, esku hartzen duten eragileen komunitate bakoitzak eskubide-kateen kudeaketa egokia gauzatzeko estrategia bat izango du, segmentu estrategiko edo azpisektore bakoitzean eskubideen transmisioa eta eskuratzeko egokia izan dadin.

Gainera, kasuan kasuko merkatuak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko, azpisektore bakoitzeko eragile profesionalen edo lehiakideen artean aktiboak kudeatzeko politika bat aurreikusi beharko da, sektoreak behar bezala funtziona dezan, gardena izan dadin eta benetako lehia bat egon dadin; horrek eragileen arteko harremana hobetuko du eta onura ekonomikoak eraginkorragoak izango dira.

Adierazitakoa kontuan hartuta, sektoreei eskubideak transmititu eta eskuratzeko estrategia egokia emateko helburu orokorra erdiesteko (eta, hala, sektorearen ustiapen baketsua izateko), beharrezkoa izango da aurretik helburu espezifikoak erdiestea:

Helburuak		Garrantzia
Orokorrak	Sektoreei eskubideak transmititu eta eskuratzeko estrategia egokia ematea, sektorean ustiapen baketsua lortzeko	Altua
Especifikoak	Eskubideak transmititu eta eskuratzeko estrategia egokia edukitzea, segmentu estrategiko eta azpisektore bakoitzerako.	Altua
	Eskubideak transmititu eta eskuratzeko estrategia egokia edukitzea, azpisektoreetako eragile profesionaleri zuzendua.	Altua

4.4.- Laugarren helburua: ondare ukiezinaren kudeaketari zor zaion balioa ematea, KSlen ardatz gisa

Azken helburua da KSlen ondare ukiezinaren kudeaketari garrantzia ematea, haien ardatz gisa. Jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak orokorrean (eta zehazki) ezagutzeak eta ulertzeak, eta aktibo ukiezinak kudeatzeko estrategia egokia aplikatzeko aukera ematen duten tresna eta baliabidea edukitzeak eta benetan erabiltzeak nahitaez dakar KSlak aktibo ukiezinaren kudeaketari zor

zaion balioa ematea; izan ere, aktibo horiek oso ondare garrantzitsua dira, eta, behar bezala kudeatuz gero, KSlen jardueren ustiapenaren onurak handitu egiten dira.

Aktibo ukiezinaren balioa zenbat eta hobeto ezagutu eta zenbat eta gehiago handitu, orduan eta hobeak izango dira ustiapenaren emaitzak. Horrek, gainera, onura ekonomiko eraginkorragoak lortzeko aukera emango du ezinbestean.

Ildo horretan, KSlen sektoreko aktibo ukiezinak ondo kudeatzeak eragin positiboa du, oro har, komunitatean, honako hauen aldeko onurak sortzen baitira: i) KSlen aldekoak, ez baitute izango eurenak baino muga gehiagorik (arrakasta euren ahalegin eta gaitasunaren arabera izango da, kanpoko faktoreek parte hartu gabe); ii) kultur-aitxor orokorraren aldekoak, areagotu egingo baita eta lehia-gaitasun handiagoa izango baitu nazio-mailan zein nazioartean; eta iii) kontsumitzaileen aldekoak, eskaintza anitzagoa, merkeagoa eta kalitatezkoa izango baitute.

Helburu orokor horrek kudeaketa egokiaren azken xedeak betetzea dakar. Honako hauek dira:

Helburua eta xedeak		Garrantzia
Orokorra	Ondare ukiezinaren kudeaketari zor zaion balioa ematea, KSlen ardatz gisa	Altua
Azken xedeak	Aktiboen ustiapenaren onurak hobetzea	Altua
	Kultura-aitxor orokorra hobetzea	Altua

Aurrekoa adierazita eta egindako azterketan oinarrituta, zehaztu egin dira euskal enpresa-ehunduraren KSlen jabetza intelektualaren arloko betetzearen desbideratzeak, eta ondorioztatu da kudeaketa arloko betetze-maila orokorra txikia-ertaina dela. Hortaz, komenigarria da KSlei baliaabideak ematea egoera hori alda dezaten. Azken batean, KSlek orokorrean egiten duten kudeaketak beharrezkoa du hura hobetzen eta garatzen lagunduko duten neurriak hartzea eta ezartzea. Horren xedea da jabetza intelektual eta industrialari eta gainerako eskubideei buruzko araudia bete egingo dela eta ustiapen ekonomikoa eraginkorra izango dela bermatzea.